

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA



Udaberriko oporrak



Naiara Diezandako trofeorik garrantzitsuena egindako lagunak dira / 2-4

Euskaltegiek aurretik lan handia dute eta, horregatik, AEK-k laguntza eskatu du / 6

Arbizuarrek plazan estalpe laukia jartzearen alde egin dute herri galdeketaren bidez / 21

Uharte Arakil urez hornitzen duen iturburu bateko hoditeria aldatuko dute aurten / 7

Covid-19aren kontrako txertaketa eta baheketa orokorra Urdiainen / 19

Liburu dastaren bigarren gonbidatua Uxue Alberdi izanen da, 'Dendaostekoak' liburuarekin / 29

Esti eta Mikel Markez musikariek 'Azal berritzen' diskoa aurkeztuko dute lortia kultur gunean / 31

Oporretara goaz!

Apirilaren 12an itzuliko gara





Naiara Diez 2020ko Superkopako txapelturnoaren saria jasotzen. Agurra gertu zegoelako berezia izan zela aitortu du. LOINTEK GERNIKA

"Imajinatzen nuen guztia eta gehiago lortu dut; zorionekoa naiz"

NAIARA DIEZ FERNANDEZ SASKIBALOI JOKALARI OHIA

Lointek Gernikako kapitain altsasuarrak saskibaloia utzi du. Bere ibilbidea gorenean utzi du, oso zorionsua izan dela nabarmendu du eta esker oneko hitzak besterik ez ditu

Maidet Betelu ganboa ALTSASU

Martxoaren 10ean jakin zen berria: Naiara Diez Fernandez saskibaloia utziko zuela iragarri zuten. Lointek Gernika Bizkaia taldeko kapitainak 34 urterekin utzi du saskibaloia, gorenean zegoela, 16 urte profesional izan eta gero, azken 8 urteak Lointek Gernikan, bere bigarren etxean. Gutun hunkigarri batekin esan zion agur bere ibilbideari.

Duela hiru aste, bote prontoan, a ze nolako albiste eman zenuen.

Beharbada jendearendako bat-batekoa izan zen, baina asko pentsatutako erabakia izan da. Nik argi nuen, baita nire familiak ere. Bazekiten momentua iritsi zela, eta oso pozik nago sentitu dudana gertutasun, berotasun eta babesarekin; horrenbeste mezu jasotzea oso polita izan da.

Argi zenuen zure pasioa eta lanbidea izan dena gorenean zeundela utzi nahi zenuela?

Urte asko daramat maila gorenean; gorputzak eta batez ere buruak esaten dizu noiz utzi, eta nik argi neukan momentua iritsi zela. Saskibaloian imajinatzen nuen guztia eta gehiago lortu dut, eta maila gorenean eta gainera Gernikan izatea, Altsasu eta gero nire bigarren etxea denean, niretako erretiratzeko modu bikaina izan da.

Noiz erretiratu nahi duen norberak erabakitzea handia izango da.

Bai. Beti pentsatu izan dut nik saskibaloia utzi nahi nuela eta ez aldebres, ez litzaidake gustatuko saskibaloiak ni uztea. Erabakia nik hartzea oso pozgarria izan da; zorionekoa sentitzen naiz. Badaude lesioagatik edo gorputza ongi ez zutelako utzi behar izan duten kirolariak, baina nik erabaki dut noiz, non eta zein momentutan utzi. Uste dut nire ibilbide guztian zorte handia izan dudala, baita momentu honetan ere.

Bihotzetik idatzitako gutun batekin agurtu zinen. Oso zorionsua izan zarela nabarmendu zenuen eta esker oneko hitzak izan dituzu.

Gutuna idazterakoan momentu asko etorri zitzaizkidan burura,

pertsona asko... Izan ere, nire ibilbidea oso luzea izan da. Argi neukan bi gauza egin nahi nirela. Bata, argi utzi nahi nuen zorioneko jokalaririk bat izan nirela. Bestetik, nire ibilbidean pertsona asko ezagutu ditut, lagunak bilakatu direnak. Eta trofeo garrantzitsuena hori da, nire bizitza guztirako lagunak eramaten ditudala. Saskibaloiarekin bizi izan dudana imajinatzen nuena baino askoz ere hobea izan da, zorionsua izan naiz nire alboan egon diren estamentu guztietatik errespetu osoz tratatu izan nautelako eta hori guztia eskertu nahi nuen gutunean.

Albiste eman eta berehala sare sozialetan sekulako mugimendua sortu zen. Denetarikoz errekonoiztuzko hitzak jaso zenituen taldekideen, arerioen, arbitroen, saskibaloia taldeen, federazioen eta zaleen eta gertuko aldetik. Guztiak gogoratu dira zurekin. Mezu horiek guztiak irakurri dituzu?

Ni ez naiz sare sozialetan oso aktiboa, baina egun horietan berotasun mezu horiek irakurri nituen. Oso polita izan da; agian ezin diet guztiei erantzun, baina guztiei eskerrak eman nahi dizkiet. Momentu hau oso berezia izan da niretzat, eta, egia esan, ez nuen espero horrenbeste mezu jasotzea. Ohorea da horrenbeste jende euren denboratik niri tarte bat eskaintzea. Momentua ailegatu da eta momentu hau ere gozatzen ari naiz.

EMAKUMEEN KIROLA

Jaso duzun babes horrek erakusten du estamentu guztietan Lointek Gernikako kapitaina oso estimatua dela. Emakumezkoen talde batez ari gara, eta, tamalez, halako mugimendua ez da oso ohikoa.

Zuk esan duzun bezala, "tamalez". Ni beti izan naiz talde jokalaria. Kapitaina izatea ohore bat izan da; kapitain ona izateko zure taldea behar duzu, eta ni zorioneko kapitaina izan naiz. Jokalariek kapitain on bat izaten saiatzen lagundu naute. Arbitroek ere ondo tratatu naute, eta hedabideek beti oso ondo tratatu nauzue. Ildo honetan hedabideei



EGOKI
Ventanas PVC Leihoak

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti

**EROSOTASUNERAKO
PENTSATUAK**

Diseinu soileko lehio berriak

Erakusketa: Olite kalea 16 · Iruñea



eskatu nahiko nieke emakumezkoen kirola sustatzeko aurrera pauso bat ematea. Bestalde, guztionatik jasotako babesa eskertzekoa da. Oso maitatua sentitzen naiz, ez bakarrik Gernikan eta Altsasun; jende asko dago hemendik kanpo hori ere sentiarazten nauena.

Garai batean zure erretiroak ez zuen halako oihartzunik izango. Horrek erakusten du emakumezkoen kirolak gora egin duela, nahiz eta oraindik asko dagoen egiteko. Lointek Gernika taldeak historia egin du ez bakarrik EuroCupera iritsi delako, baizik eta, esaterako, 2020ko ilbeltzaren 4an 5.562 ikusle bildu zenuen Bilbon Gernika eta Zaragoza Mann Filter taldearen arteko partidaren. Emakumezkoen kirolean pausoak eman dira.

Pausoak ematen ari dira, argi dago. Profesional mailan hasi nintzenez, egunkaria hartu eta izkina batean zure partidako emaitza bakarrik ikusita jada pozten zinen. Emakumeen kirolak oihartzuna du eta aurrera pausoak eman dira, baina gizonen kirolarekin alderatuta oraindik alde dago. Prentsan gizonen kirolak duen portzentajea eta emakumeen kirolak zenbat orrialde betetzen dituen ikustea bezalakorik ez dago. Beraz, lanean jarraitu behar dugu. Gizartea eta hezkuntza ezinbestekoak dira. Umeek telebistan emakumezkoen kirola ikusten badute, hazten diren heinean normaltasunez ikusiko dute. Beraz, normaltasun hori lortzeko pausoak eman behar dira.

ATZERA BEGIRA

Zergatik hasi zinen saskibaloian?

7 urterekin hasi nintzen nire lagunekin, beraiek ere taldean zeudelako, ongi pasatzen genuelako eta nire aita saskibaloiko arbitroa zelako. Kategoria handietako epailea zen. Aita arbitratzen ikusi izan dut beti, eta txikia nintzenetik partidak ikusten nituen. Aitak saskibaloia utzi, nik lekukoa jaso eta honaino iritsi naiz (kar, kar...). Altsasuko kiroldegian orduak eta orduak pasata oso pozik ibili nintzen, 16 urtera arte.

Orduan Ziburko Ardoi taldean hasi zinen. Aldaketa handia izan zen, Iruñera joan baitzinen bizitzera.

Kirol beka bati esker bi urte eman nituen erresidentzia batean eta Ardoin jokatzeko eta bertan egin nuen Batxilergoa. Nire gurasoei eskerrak eman behar dizkiet 16

urterekin etxetik ateratzen uzteagatik. Nire esperientzia pertsonala asko hazi zen, eta ditudan balore asko han ikasi nituen.

Beraiek ere esfortzua egin zuten.

Bai. Familia beti alboan izan dut, nire gurasoak eta ahizpa. Txikia nintzenetik bidaia asko egin behar izan dituzte Nafarroako Selektzioaren entrenamenduetara eramateko, partidetara joateko... Nire ibilbidea segitzeko asko bidaia behar izan dute eta beraiek ere nire esker ona. Beti esan didate aurrera egiteko baina nondik natorren inoiz ez ahazteko.

18 urterekin junior mailako Espainiako Txapelketan Zaragoza Mann Filter taldeko Alex Cebrian entrenatzailearen arreta bereganatu zenuen. Zaragoza taldera joateko eskaintza onartu eta han lau urte eman zenituen profesional gisa.

Ardoin nengoen junior mailan eta Nafarroako txapeldunak izan ginen. Espainiako Txapelketara joan ginen eta han Mann Filter maila goreneko entrenatzaileak partida ikusi zuen. Dei bat jaso nuen eta Mann Filter taldera joateko proposamena egin zidaten. Profesional mailako trena pasatzen eta etxean esan nien argi nuela tren hori hartu beharra nuela. Zaragozara joan nintzen eta saskibaloiko maila profesionala eta unibertsitateko ikasketak uztartu nituen. Askok ikasi nuen bai saskibaloiaz eta baita bizitzaz ere. Nire ibilbidean Zaragoza oso garrantzitsua izan da.

Lau urteren ostean Iruñera itzuli zinen, Union Navarra Basket Obenasa taldera. Urte gazi gozoak izan ziren. Gozoak Obenasaekin emakumezkoen saskibaloiko maila gorenera igo zinetelako, baina gaziak taldeak bukaera tristea izan zuelako, krisi ekonomikoagatik desagertu baitzen.

Hala da. Etxera bueltatu eta oso polita izan zen lehenengo urtean 2. mailatik 1. mailara igotzea. Denboraldi ikaragarriak egin genituen, bereziki azkenekoa: play-offetarako sailkatu ginen, eta kirol mailari dagokienez oso egoera onean geunden, sekulako maila genuen. Baina krisi ekonomikoa iritsi zen, ekonomikoki ezin izan zuten proiektua mantendu -betikoa, emakumeen kirola da halako egoerak lehen sufritzen dituen-, eta proiektua bertan behera geratu zen. Orduan Lointek Gernika taldearen deia jaso nuen eta nire bigarren etxera joan nintzen.



Hirukoetan espezialista eta defentsan iaioa izan da altsasuarra. LOINTEK GERNIKA

"MAILA GORENEAN ETA GERNIKAN IZATEA, ERRETIRATZEKO MODU BIKAINA IZAN DA"

8 URTE GERNIKAN Gernikara 26 urterekin joan zinen eta 8 urte eman dituzu bertan. Azkar esaten da, ezta?

Bai. 8 denboraldi egin ditut. Hainbeste gauza bizi izan ditut han... 8 urte azkar esaten da, baina asko

bizi izan dut Gernikan. Nire bigarren etxea da, zalantzarik gabe. **Eskolta, hirukoetan espezialista eta defentsan iaioa. Eta pasioa. Horiek dira Gernikako kapitainaren ezaugarrietako batzuk. Eta beti irribarra jantzita. Giro ona sortuko zenuen taldean.**

Saiatzen nintzen. Badakit kapitain izateko ezaugarri horiek behar direla. Taldeaz harro egon behar duzu eta beraiek ere zutaz harro sentitu behar dira. Askok exijitu izan dudana kapitaina izan naiz, nik ere horrela ematen dudalako. Nik %100 ematen badut, beraiek hori ikusten dute eta hori da adibiderik onena eurek ere hala egin dezaten. Egin, eta ez esan. Zorrotza izan naiz nire buruarekin ere halakoa naizelako, baina behar nautenean hori egon naiz eta hori nago. Eta irribarra jantzita nuen ondo pasatzen nuelako, ongi sentitzen nintzelako eta nire jokalariekin harreman oso ona izan dudalako; normalean horrelakoa naiz, bai kantxan, bai entrenamenduetan eta baita nire lagunekin Altsasuko plazan nagoenean ere.

Badakigu ez zarela estatistiken oso zalea, baina datu batzuk aipatzeren, 16 urte egin dituzu profesionalen, 385 partida jokatu dituzu, 1.731 puntu egin dituzu eta 6.006 minutu jokatu dituzu.

Eta hor atzean kilometro pila bat daude (kar, kar...). Estatistikak ez ditut jarraitzen, talde mailakoak ez badira. Adibidez zenbat errebote atera dizkiguten, zenbat falta egin ditugun... taldeko datuak bai, baina estatistika indibidualak ez nituen jarraitzen nire sentsazioak zeintzuk diren nik baino hobe inork ez dakielako. Estatistiketan gauza garrantzitsu asko ez dira jasotzen. Kantxan zenbat egin duzun korrika, zenbat animatzen duzun, arerioek ez saskiratzeke nolako defentsa egiten duzun... hori guztia ez da jasotzen, eta niretzeko ezinbestekoa da. 12 jokalarik gaude baina 12 jokalaririk ez ditugu 20 puntu sartu behar; guztien lana partida aurrera ateratzea da, eta lan hori ez da estatistiketan islatzen, zenbatu ezina delako. Defentsa on bat egiten duzunean badakizu ongi egin duzula, zure batezbestekoa izan da arerioak 20 puntu sartu ordez 5 sartu dituela zuk egindako defentsari esker, eta etxera zoazenean pentsatzen duzu: zelako lana egin dudane! Estatistikek ez dute lan hori jasotzen. Jokalariei esaten diet

estatistikak beharbada entrena-tzaileendako direla garrantzi-tsuak; jokalariendako, niretako behintzat, ez.

Otsailaren 14an jokatu zenuen zure azken partida Estudiantesen kontra. Zein oroitzapenekin geratu zara?

Une horretan ez nekien nire azkeneko partida izango zela. Hortaz, modu normal batean bizi nuen. Magariñosen jokatu genuen, eta atzera begira, orain pentsatzen dut: Magariños mitikoan jokatu nuen profesionaletako nire azken partida, kantxa mitiko batean.

BIZITZA BERRIA

Zer egin zenuen entrenatzera joan ez zinen lehendabiziko egunean?

Estudianteseko partida eta gero gure taldean COVID kasu positiboak agertu ziren. Horieta bat ni izan nintzen. Taldearen erdia baino gehiago izan ginen positibo, eta une zailak izan ziren. Hortik ateratzean erabaki nuen saskibaloia uztea. Eta zer egin nuen? Sare sozialetako mezuak irakurri eta erantzun, hedabideekin elkarrizketak izan... As-teburu horretan Altsasura joan nintzen eta bost lagun bazkal-tzera joan ginen. Niretako zoragarria izan zen, ez nuen gehiago behar. Nire bizitza oso normala izan da nire kirol ibilbide guztian eta hala izaten jarraituko du.

Hemendik aurrera zer egingo duzun erabaki duzu edo oraindik aukerak aztertzen ari zara, normaltasun berri hori zehazten?

Normaltasun hori ez dakit zein izanen den, baina orain dela oso gutxi utzi dut saskibaloia profesionaletara, eta gutxika asteburuak libre izatera ohitzen ari naiz, urte dezente eman baitut asteburu librerik gabe, eta nire burua kokatzen ari naiz. Lointek Gernikak orain play-offak jokatu ditu eta taldekideekin egon nahi dut, kantxatik kanpo babesa ematen. Lasaitasunez hartuko dut eta gero gerokoak.

Zein izan da zure kirol ibilbideko unerik okerrena?

Saskibaloian eta goi mailako kirolean dena ez da dirudien bezain polita. Goi mailan egotea eta mantentzea ez da batere erra-

"ASKO EXIJITU IZAN DUDAN KAPITAINA IZAN NAIZ, NIK ERE HORRELA EMATEN DUDALAKO"



Naira Diez Fernandez kapitaina bere taldekideekin. Zorionkoa sentitzen dela behin eta berriz erreplikatu du altsasuarrek. LOINTEK GERNIKA

za. Egun zailak izaten ditugu, baina etxean pasatzen ditugu, ez da inor konturatzen. Momentu txarrak egon dira, baina momentu onak askoz ere gehiago izan dira eta une onak gogoratzea niretzat askoz ere politagoa da. **Zein izan dira une onenak?**

Asko daude. Momentu oso ona nire debuta izan zen, 18 urte nituela, Mann Filterrekin, Zaragozan. Beste une oso ona izan zen duela bi urte EuroCupean Galatasaray talde turkiarra Malosten irabazi genuenean, gure etxean. Maloste jendez gainezka, Marea Granatea txaloka, aldagelara joan ginen eta berriro atera behar izan genuen zaleak oraindik ere txaloka zeudelako eta emozioz gainezka geundelako... Eta beharbada azkeneko unea izan da Superkopako finala jokatu genuenean kapitain gisa trofeoa hartu nuenean; banekien gutxi geratzen zitzaidala eta trofeoa hartzea oso pozgarria izan zen niretzat. Hiru aipatu ditut, baina momentu askoz ere gehiago daude.

Oso gernikartuta zaude. Bertan bizitzen jarraitzeko asmoa duzu?

Aitortu beharra dut oso gernikartua nagoela; nire euskararen bertan nabaritzen da. Etorri nintzenez euskara batua hitz egiten nuen eta gutxika aldatzen joan da. Orain biak nahasten ditut, ez dakit ona edo txarra den (kar, kar...). Gernikarrek eman didaten bizitzeko modua,

beraien jarrera, Gernikan sentitzen den euskara... hori guztia jaso dut, pertsona gisa hazi egin naiz eta gernikako euskalkian hitz egitea niretzat eurei eskertzeko modu bat da. Oraindik ez dakit zer egingo dudan eta non egongo naizen baina badakit Gernikara askotan bueltatuko naizela. Hori ziur.

Atentzioa deitu zidan zure agurreko gutunean aurkariet eskerrak eman zenizkienean "zuei esker eman dudalako nire mailarik onena eta aldi berean pozik jaso ditut kiroltasunak trukean emandako pozak".

Kantxatik kanpo aurkariak batzuetan lagunak dira, eta lagun dezente ditut saskibaloian nire aurkariak direnak. Ildo honetan, zure aurkaria errespetuz tratatzen baduzu berak ere errespetuz tratatuko zaitu. Eta hori da niretako garrantzitsuena. Kantxan gertatzen dena kantxan geratzen da, eta hortik kanpo dago garrantzitsuena, bizitzaren kontuak.

"Zoriontsu izan naiz eta pozik noa, nire kirol ibilbidean zehar lortutako garaikur garrantzitsuena eskuratu baitut: bizitza osorako lagunak" diozu zure agurreko gutunean.

"TROFEORIK GARRANTZITSUENA IBILBIDE HONETAN EGIN DITUDAN LAGUNAK DIRA"

Beti esaten dut zorionkoa naizela. Nire ibilbidean momentu ikaragarri politak bizi izan ditut eta oso ondo bizi ditut partekatu ditudalako. Une horiek oso bereziak dira eta ondoan dauden jokalariek bakarrik ulertzen dute sentimendu hori. Niretako nire ibilbidean lortutako saria hori da, pertsonak ezagutzea, azkenean bizi osorako lagunak bilakatu direnak. Nik lortu dudan trofeorik politena lagunak dira. **Ez dakit kirol profesionalak berak, edo inguratzen duen espektakuluak edo kirol prentsak sustatzen duen, baina akaso zaleok kirola ikusteko modu bat dugu eta zuek beste bat bizi duzue.**

Beharbada. Jendeak uste baino askoz ere normalagoak gara. Agian kanpotik beste ideia bat ematen da edo beste gauza bat ikusten da. Jokalariak izan baino lehen, pertsonak gara. Eta pertsona triste dagoenean agian jokalaria triste dago, eta egun txarra badu beharbada egun txarra izango du ere jokalaria gisa.

Jokalari profesionalen artean denetarik dago, baina gehienak uste baino gertuagokoak dira, pertsona normalak.

Bai. Hor ikusten da zer nolako normaltasuna dugun eta erakutsi nahi dugun. Denetarik dago, baina zuk esatea eskertzeko da. Kirolari guztiak horrela beharko lukete izan.

Zein beste kirol dituzu gustuko?

Kirolaria naiz, kirol guztiak maite ditut eta ikusten ditut. Txikitan denetan aritzen ginen kiroldegian. Maria nire lagunarekin, Zelandiko esku pilota txapelketa irabazi genuen, Zelandiko areto futbol txapelketan aritzen ginen... Saskibaloiaz gain futbola, tenisa, eskubaloia... gustuko ditut. Egia esan, kirol guztia ikustea gustuko dut eta orain, geroz eta gehiago praktikatzeko, ondo pasatzeko. **Plazer bat izan da urte hauetan guztietan zure ibilbidea jarraitzea. Ea bidean berriro elkartzeko garen beste gauza batzuetaz aritzeko. Etorrizunak zer ekarriko duen nork daki...**

Eskerrik asko zuei ere. Hasi nintzenetik gogoratzen naiz zoragarria zela Guaixen nire izena ikustea. Gordeta ditut nire izena agertzen den Guaixeko ale guztiak. Niretako zoragarria zen: "Guaixen atera naiz ama, a ze sorpresa!". Zuekin nire ibilbidea bukatzea berezia izan da. Eskerrik asko beti hain ondo tratatu izanagatik eta Sakanako kirola sustatzeko egiten duzuen lanarengatik. Orain askotan ikusiko dugu elkar Altsasun. Zer etorriko den nork daki?

"ZORAGARRIA ZEN NIRE IZENA GUAIXEN IKUSTEA. GORDETA DITUT NI AGERTZEN NINTZEN ALE GUZTIAK"



ASTEKOA

XABIER REPARAZ EXTRAMIANA

Txertatzen

Gaur egun txertatuta saltzen dituzten arren, txertoa frutarbolei egiten zitzairen ebakuntza bat zen. Zuhaitzek izerdia adarretan gora zeramatenean, udaberriak bere indar guztiaz elikatzen zituenen, mizpira txertatzen zen elorrian. Gerezi, okaran, udare eta sagar kontua zen txertoarena. Bost sagar mota txertatuta zituen sagarrondoa ere gogoan dut aitonaaren baratzean. Orain txertoa beste gauza bat da. Haien mota desberdinak ere banan-banan aipatzeko gai gara gehienok, baten batek, Michelle Pfeiffer nahastan badu ere haien izenen tartean. Adina edo lanbidea hizpide, xiringa zorrotzak helmugan dituzten ilara luzeak agertu dira. Adina, zaharrenak direnak txertaturik, haien heriotzak gutxitu direla ematen du. Lanbidea, jendaurreko arretan, berebizikoak diren lanbide haiek ere jasoa dute aurtengo txerto berria.

Txertoak, ordea, beti izan du arrisku bat. Frutarbolei galdetu bestela, haien adar nagusia mozten zen, han beste adar bat sartzeko. Ongi ateraz gero, lore ederrez loratu eta fruta gozoz

betetzeko bidean jartzen zen. Txertoak, landare berrian izerdia hartzen ez bazuen berriz, landarea ebakita, aurrera atera ezinik geratzen zen. Udaberri honetako txertoek ere arriskua badute, txikia, baina badute. Txikia

bada ere, pasa dugun urtea pasa ondoren, beldurra eragiten digu arrisku hori hartzeak. Baina zein da beste aukera? Nahi eta nahi ez, mundu globalizatuan bizi den artalde handiaren parte gara. Lurrez, airez eta itsasoz lotu ditugu kontinente guztiak. Bazter guztiak kutsatu ditugu hilabete gutxitan. Heriotzari ihes egin diogunok badugu esker ona non adierazi. Senideengatik, adinekoengatik, bizilagunengatik, ezezagunengatik, txertoa hartu eta honekin amaitu beharra dugu behingoz. Zain dugun udaberri berria benetakoa izan dadin guztiontzat.

Oporretara goaz:
Datorren astean ez da
GUAIXE astekaririk egongo,
hurrengoa apirilaren 16an izanen da.

HARA ZER DIEN

Toledoko ituna

SASOIA JUBILATUEN ELKARTEA

Laburbilduz esan dezakegu Toledoko ituna kapitalismoak sortutako tresna berezi bat dela, politika sozialak kapitalismoaren interesen arabera bideratzeko. Horregatik protagonismo berezia hartzen du krisi ekonomikoak astintzen gaituen bakoitzean. Banku eta enpresariaren interesak babesteko, Kongresuko diputatuek hautatzen dituzten adituen batzorde bat da.

Sortu zen unetik, 1995ean, langile, jubilatu, alargun eta gizaki behartsuenen zigor bilakatu da. Bere esanetara makurrarazten du Gobernua bera. Horren adibide bankuen zorrei ematen zaion lehentasuna, 2010-2012ko lan erre-

forma, 2011-2013ko pentsioen erreforma, pentsio sistema pribatuak bultzatzea, gizarte zerbitzuak murriztea...

Oraingoan, PSOE eta Ahal Duguk osatzen duten Gobernuak gauzak hobetuko zituelakoan geunden jubilatuok, baina denbora pasatzen doan heinean, konturatu gara amets bat besterik ez dela izan. Garbi dugu, berriz ere, Bruselako presioa eta bankuena, jubilatuena baino eraginkorragoak direla, beraien interesak bermatzen dituzten bitartean, gure eskubide eta aldarrikapenak galtzearekin.

Badirudi lorpen bakarra pentsioen urteroko igoera KPIren igoeraren arabera izatea dela.

Pentsio Sistema Publikoa arriskuan dago. Diru publikoa eta enpresetako hitzarmenen bidez pentsio pribatuak bultzatu nahi dituzte.

Jubilatzeko adina atzeratu nahi dute, pentsioen eta lan erreformak bertan jarraitzen dute, genero arrakala ez dute aipatu ere egiten, emakumeen etxeko lanak eta zaintzakoak gutxiesten dituzte, 1.080 euroko pentsio minimoak bermatu gabe... Inposatu nahi dizkiguten murrizketak zuzitzeko aitzaki potoloa eman digute: Europako funtsak murrizketarik gabe ezin omen du eskuratu fondo horietatik datorción dirua.

Jubilatuena ziurtasunik gabeko egoera honek mobilizazio sozial eta laboral bat proposatu eta lantzerara behartzen gaitu, Gobernuari presionatzeko. Mobilizatzeko gai izan behar dugu, abian dauden politikak aldatzea lortzeko. Elkarrekin eta egin diezaiozun borrokari gure eskubideak eta aldarrikapenak bermatzeko.

GUTUNA

Osasun eskubidea guztiontzat ote?

MIKEL MUNDIÑANO LARRAZA

SAKANAKO SARE HERRITARRAREN IZENEAN Apirilaren 7an Osasun Eskubidearen Nazioarteko Eguna dela aintzat hartuz, geure buruari galdera hori egin behar genioke. Erantzuna teoriarik baiezkoa litzateke; BAI, denok dugu osasun eskubidea. Arazoa, ordea, eskubide unibertsal hau edozein herraldetako norbanakoei berdin aplikatzen ez zaienean dator.

Hori horrela izanik, SARE Herri-tarreko kide gisa, larriki gaixorik dauden euskal presoek bizi duten egoerari erreparatu nahi diogu. Urrunketa eta salbuespenezko politikaz gain, presoek duten gaixotasuna euren etxekoan ondoan artatzeko eskubidea ukatzen zaie eta. Jon Gurutz, Josetxo, Iñaki,

Ibon... izen zerrenda luze bat osatu genezake. Honenbestez, entzute-giek ezarritako zigorrak gain, presoek pairatzen duten oinarriko eskubideen urraketa azpimarratu beharra dugu.

Horretaz gain, zigor kodeak eta Espainiako espetxe legediak egoera berezietarako baldintza bereziak kontuan hartzen dituela gogorarazi nahi dugu. Esaterako, larritasun handiko eritasunak edo sendaezinak dituzten gaixoena, baita 17 euskal presoena ere, hortaz. Baldintza berezi horiei helduz, gaixotasunaren beharrezko txostenarekin eta presoaren sailkapena kontuan izan gabe, hirugarren graduan beharko lukete, arazo humanitarioak eta pertsonaren duintasuna tarteko. Eta noski, baita justiziagatik ere, horrela jasotzen baitu espetxe araudiko 100.4 artikulua. Are gehiago egun bizi dugun pandemia egoera honetan.

Egia da zigorturik dagoen eta gaixotasun larri bat duen preso baten kaleratzeak ez duela sendaezina den gaitz baten sendatzea ekartzen, baina horren hobetzea eta garapenaren moteltze nabarmena dakar, zalantzarik gabe. Izan ere, profesionalek artatzea eta presoaren giro zein inguru-nearen aldaketak modu positiboan eragingo du gaixotasunaren garapenean.

Beste behin, SAREk honako hau azpimarratu nahi du: legediaren aplikazioa ez da inolaz ere estatuaren amore emate gisa ulertu behar. Hau da, larriki gaixorik dauden presoek kaleratzea ez da amore ematea, euren eta Europaren legedia betetzea baino ez da.

DUINTASUNAGATIK, GIZATASUNAGATIK ETA JUSTIZIAGATIK LARRIKI GAIXORIK DAUDEN PRESOEK ETXEAN EGON BEHAR DUTE. Bizirik eta etxean nahi ditugu!

guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Felix Altzelai Iriarte

Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK



Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:
Irene Trecet Obeso
maketatzaia@guaixe.eus

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107 (Faxa)
618 882 675



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



Sakanako AEK-k Korrikaren ordezeko ekitaldia Etxarri Aranazko plazan egin zuten.



Gaztetxeko plazatxoan egin zen aurkezpena. ALTSASUKO GAZTE ASANBLADA

Euskaltegiek lan handia dute egiteko

Euskal Herriko biztanleen %55 erdalduna dela gaztigatu zuen. Jendarte euskalduntzeko euskaltegi indartsuak aldarrikatu ditu AEK-k. Euskaltegi sareari laguntza eman nahi dionak www.aek.eus webgunearen bidez egin dezake

Aurten Korrikak bukatu behar lukeen garaian, igande eguerdian, jakinarazi zuen AEK-k, gauzak ongi, 22. Korrika 2022ko martxoaren 31tik apirilaren 10era izanen dela. *Euskaltegiak bultza, bultza euskara* dinamikaren barruan Etxarri Aranatzeko egindako ekitaldian jakinarazi zuten hori Sakanako AEK-ko kideek.

Haiek helduak euskalduntzen segitzen dute eta bai Euskal Herrian bai munduan barna euskara ikasten ari diren pertsonak 40.000tik gora direla jakinarazi zuten. Datu pozgarri horren aldamenean errealitate gordina jarri zuten ere: "Euskal herritarren %55 erdaldunak dira, eta, beraz, euskaltegi guztiak dira

beharrezko jendarte euskalduna amets badugu".

Egiteko horri behar bezala heltzeko, AEK-ko kideek esan zuten, "euskaltegi sendoak behar ditugu, Euskal Herri osoko herritarrei euskara ikasteko aukera emateko baldintza egoki guztiekin". Horregatik, Euskal Autonomia Erkidegoko, Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko administrazioetatik "euskaltegiei bultzada estrategikoa eman" behar zaiola aldarrikatu zuten. Horretarako, eta "helduen euskalduntze mugimendua sustatzeko eta euskaltegiei bultzada emateko" jendartearen babesa eskatu zuten AEKtik: "denok egin dezakegu

geure ekarpena: egunero eta aukera dugun guztietan euskara erabiliz eta prestigiatuz, jendea euskaltegietara joan dadin animatuz, matrikulazio kanpainak sustatuz, euskaraz bizitzeko nahia plazaratuz..."

COVID-19 gaitzak eragindako pandemiak aurten hamar eguneko errelebo lasterketarik gabe, "euskararen aldeko ekimenik garrantzitsuena gabe" utzi gaituela nabarmendu ondoren, AEK-ko kideek azpimarratu zuten, "oraindik ere nahitaezkoa da duela 40 urte jaio zen ideia ero eta zoragarri hura gauzatzea". AEK-ko kideek hurrengo prestatzen buru-belarri ari direla ziurtatu zuten.

Gazte asanbaldak gazteriaren beharren diagnosis eginen du

Gazte kuadrillekin elkartuko dira harremana sustatzeko eta inkesta pasako diete haien arazoak identifikatzeko

ALTSASU

Harridura sortzeko kanpaina baten ondoren, Altsasuko Gazte Asanbladak (AGA) herriko gazteen arazoak identifikatzeko ekimena aurkeztu zuen larunbatean. AGAk abiatutako prozesua "duela hilabete batzuk izandako eztabaida baten ondorioa da. Bertan, Gazte problematika ematen den esparru guztietan antolakuntza hedatzeko tresna gisa ulertzen du gazte asanblada. Eta Altsasuko gazteria guztia barne bildu nahi dugu".

AGAKo kideek azaldu dutenez, "Altsasuko gazteriaren arazo nagusiak zein ziren ez genekien eta, beraz, ez genekien nola bilakatu AGA izan behar duen horretan". Horregatik, gazteria altsasuarraren problematikak identifikatzeko prozesua martxan jarri dute AGAKo kideek. Herriko ahalik eta gazte gehienengana iritsi nahi dute eta,

horretarako, "Altsasuko kuadrilla gehienekin izan nahi dugu hartu-eman".

AGAKo kideak kuadrillekin bilduko dira eta aukera baliatuko dute haiei inkesta bat pasatzeko, han beraien beharrak zehaztu ditzaten". Galdetegiak lau zati izanen ditu: lana, aisialdia, ikasketak eta etxebizitza. Inkesta betetzeko denbora tarte bat emanen zaie lagun taldeei. Hura pasatuta, AGAKo kideak, atzera ere, kuadrillekin elkartuko dira, galdetegi jasotzeko. "Inkestetako emaitzak aztertuko ditugu eta hurrengo ikasturteari begira hainbat borroka fronte martxan jarriko ditugu". AGAK prozesua astelehenean abiarazi zuen eta garagarrilera arte luzatuko du. Gazte altsasuarrak bertan parte hartzera animatu dituzte, "inkestak betez eta hurrengo faseetan gurekin parte hartuz".

Gasbidearen ibilbidean

Larunbat goizean 90 pertsona elkartu ziren Madotzen *Aralar zain dezagun! Gasbidea hemendik ez!* plataformaren deiar erantzunez. Guztiek Etxeberri eta Lekunberri lotuko lituzkeen gasbideak Aralar mendiaren hego ekialdeko magalean sortuko lituzkeen ondorioak bertatik bertara ezagutu nahi izan zituzten. Adituen azalpenak entzun zituzten bidean.



UTZITAKOA

Plazaola bide berdearen argazki lehiaketa

Europako zortzi bide berde lotzen ditu Trail Gazers BID (Interreg-Atlantic Area) proiektuak. Horien artean dago Plazaolako bide berdea. Plazaola turismo partzuegoak jakinarazi duenez, "testuinguru horretan, udaberriko oporretarako argazki lehiaketa antolatu da, apirilaren 1etik 11ra. Plazaolako bide berdean". Partzuegotik zehaztu dutenez, "Pla-

zaolako bide berdeko eta bidetik hurbil dauden herrietako paisaia, kultura eta ondare ingurunearen argazkiak bildu nahi dira lehiaketarekin". Interesatuek argazkiak Instagramen partekatu ditzake *#TrailGazersPlazaola* traola gehituz. Antolatzaileen profila *@trail.gazers* da. Lehiaketari buruzko informazio www.trailgazers.eu webgunean eta proiektuko sare sozialetan kontsulta daiteke. Irabazleendako saria kirol kamara bat izanen da. 14 urtetik gorakoendako da.



Mendizale taldea ura hartzeko zain. ARTXIBOA

Udalak ur hornidura bermatzeko lanak egingen ditu

Bargako iturburuetako batetik ur biltegirainoko hodian ur ihesak daude eta haren orde berri bat jarriko da

Alfredo Alvaro Igoa UHARTE ARAKIL
Edateko ura bargatik hartzen du Uharteko Arakilek, Arpelu eta Ganbeleta iturrietatik. Bi iturrietako ura hoditeria bidez ur biltegirira eramaten da, han tratatu eta Uharteko Arakilgo etxearaino iristeko. "Ganbeleta iturritik ur biltegirainoko hodiak 60-70 urte ditu, mikrozentuzkoa da. Lurra asko mugitzen da Bargan, kaskallua baita. Eta mugimenduek hautsi egiten dute hodia", azaldu du Txomin Uharteko Baleztena alkateak. Ondorioz, ur ihesak ere izaten dira.

Egoera konpontzeko Uharteko Arakilgo Udalak hodi hori kendu eta beste bat jarriko du. "Malda handia dagoen tokian, urak presio handia duen tokian, burnizko hodia jarriko da eta gainerakoan poliuretanozkoa. Kilometro batean aldatuko da". Uharteko azaldu duenez, Toki Administrazio Departamentuarekin hitzarmena sinatu behar du udalak eta, ondoren, lanak berehala ematea aurreikusten du, obra lastailerako despedituta egon behar baitu. 185.000 euroko aurrekontua du lanak. Eta guztia Nafarroako Gobernuak ordainduko du hala jaso baita go foru administrazioaren aurrekontuan, EH Bilduren mozio bat tarteko. Arpeluko iturriko hoditeria burnizkoa da eta egoera onean dago.

Uraren goi hornidurari dagoen hori aurten konponduko du udalak. Baina uren saneamenduari buruzko Ebroko Ur Konfederazioaren errekerimen-

duak ere jaso ditu. Horregatik, Nafarroako Gobernuaren Nilso enpresa publikoarekin elkarlanean ari da udala. Uharteko azaldu duenez, "igerilekueetatik ur estolderiara iragazten da, errepideko ezponda bateko urak estolderiara doaz, kale batzuetako euri urak eta ur beltzak batera doaz araztegiara. Horrek guztiak arazoak sortzen ditu araztegiari. Gehiegizko kopurua dago". Alkateak azaldu duenez, "poliki konponbidea bilatzen ari gara, diagnosia egina dago. Udalean gauzak ongi egiteko konpromisoa dugu. Ura hartu bai, baina ahalik eta kalitate onenarekin bueltatu nahi dugu ibaira".

Uharteko Arakilgo Udalak aurten, guztira, 1.263.419,21 euroko diru-sarrerak izanen ditu. Eta, gastuak, berriz, 1.262.549,36 eurokoak. Aurreko urteko aurrekontua baino 328.000 euro gehiago aurreikusi dira aurtengo kontuetan. Eta udalak inbertsioetara 571.250,65 euro bideratzea aurreikusi du. Uharteko azaldu duenez,

Argiteria

Alkateen Ituna eta "jasangarritasunarekin dugun konpromisoa" argudiatu ditu Uharteko, argiteria publikoan dauden bonbillen orde LED argiak jartzeko. "Neurri handi batean merkuriozko luminariak ditugu. Hausten direnean ordezkorik ez dugu opatzen. Haiek poliki-poliki ordezkatu nahi ditugu, ahal den neurrian behintzat". Horregatik, aurreko urteko aurrekontuetan jaso zegoen Itsesi eta Bidez

auzoetako argiteria publikoa aldatzea eta hori bideratzen ari da udala (55.000 euroko inbertsio, 40.000 euroko dirulaguntzarekin). Aurtengo diru kontuetan Alde Zaharra eta Zerradoa auzoetako argiak aldatzeko 135.000 euroko diru poltsa dago.

Azken lan horiek egin ahal izateko dirulaguntza eskatu dute, eta finantziarioa egokia bada gehiago egitea ez du baztertu udalak. Hala ere, alkateak argi du "inbertsioak egin behar dira zulo handiegian sartu gabe, hurrengo Toki Azpiegitura Planean (TAP) Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza jaso eta beste lan batzuk egiteko aukera izateko". Uharteko aitortu du plan berriaren deialdira begira "poliki-poliki memoriak prestatzen ari gara". Uharteko jakinarazi duenez, aukera dute "aurreko TAPen

erreserban gelditu ziren lan batzuk egiteko. Inbertsioak aztertzen ari gara orain".

Udaletxea

Joan den urtean udaletxeko beheko solairuan irisgarritasuna bermatzeko lanak egin ziren. Han dago, esaterako, Donibane jubilatuen elkartearen egoitza. Suaren kontrako pintura eta larrialdi egoeretan aurre egiteko neurriak hartu zituzten. Aurten neurri horiek udaletxearen gainerako solairuetan egingen dira, betiere, segurtasuna bermatu eta suteen kontrako neurriak ziurtatzeko. Suaren kontrako pintura erabiliko dute eta eskalerei ere suari aurre egiteko tratamendua emanen diote. Balkoietako barandak 1,1 metroraigo igoko dituzte. Balkoi eta leihoetan ere neurriak hartuko

dituzte, segurtasuna bermatzeko. Lanek ere ziurtatuko dute udaletxe guztia irisgarria bihurtzea. Horretarako, 40.000 euro bideratu ditu udalak. Urtero moduan Uharteko Arakilgo Udalak kontuetan baso lanetarako dirua izanen da. Aurten Ardantzaretako larrea garbituko dute.

Hirigintza plana

Uharteko esan duenez, "udalaren asmoa plana ahalik eta azkarren egitea da. Bi urte eta erdian edo hirutan despeditzea. Urte akaberarako lehen zirriborroa izan nahi genuke". Hirigintza planean herritarren parte hartzea legez bermatuta dago, "eta, gainera, hobe da" ziurtatu du alkateak. Aldi berean, gogorarazi duenez, "aurreko udalak talde motorra osatu zuen. Guri egindako lanari segida ematea dagokigu".

Sarmen tailer honetan liburu bat egiten ikasiko dugu modu dibertigarri batean

Sarmen tailerria

LIBURU BAT EGINCO DUGU

Adin tartea: 10-12 URTE BITARTE

Data: APIRILAREN 20AN | Ordutegia: 17:00ETIK 18:30ERA | Tokia: UHARTE ARAKILGO UDALETXEO GANBARAN

Data: APIRILAREN 27AN | Ordutegia: 17:00ETIK 18:30ERA | Tokia: OLAZTIKO LUDETERAN

Izen-ematea: Tokiak mugatuak dira. Horregatik alde aurretik izena eman behar da euskara1@sakana-mank.eus helbidean

antolatzaileak

F EUSKAL GUTORREN ELKARTEA **Mank** 1988

Tokiko merkataritza, 'hemen eta orain'

Nafarroako 30 merkataritza elkarte baino gehiagok eta milaka dendek dei egin dute udaberriko oporretan tokiko turismoa egiteaz aparte, tokiko saltokietan sartzera eta zerbitzuak erabiltzera

SAKANA

Hemen eta orain tokiko merkataritzaren egoerari buelta eman dakioke Nafarroako denda txikietan erosita. "Jabetu behar dugu gure erosketak egiten ditugun tokiek duten garrantziaz eta hauek gizartearen era ingurumenean duten eraginaz". "Hemen eta orain nafar guztiak gonbidatzen ditugu herrietako merkataritza-guneetan paseatzera, bere eskaintza ezagutzera eta bertan erostera. Horrela lagunduko dugu hurbileko merkataritza modelo atsegin bati eusten, bizitza errazten diguna, berdintasunean tratatzen gaituena, entzuten gaituena eta gure beharrak ulertzen dituen".

Nafarroako 30 merkataritza elkarten sustatutako *Hemen eta Orain* kanpainaren aurkezpenean esandakoak dira. Haien artean daude Altsasuko Dendarien Elkarte eta Sakanako Dendarien, Ostalarien, Zerbitzuen Elkarteak. Guztiek deialdia egin dute: "opor egun hauetan kontsumitu aurretik gogoan izan, arduraz egin eta Nafarroako tokiko ekonomiari laguntzeko eskatzen dizugu".

Tokiko merkataritza

Kanpainaren sustatzaileek garrantzitu dutenez, "hurbileko merkataritzak, lurraldean sakaba-



Jendea erosketan poltsekin kalean. ARTXIBOA

natuta, aberastasuna eta ongi-zatea sortzen ditu, gure herriak kohesionatzen ditu, gure kaleak dinamizatzen ditu, hurbileko eta kalitatezko zerbitzua eskaintzen du eta enplegu eremu garrantzitsua da". Establezimendu horiek elkarteetan bilduz antolatu eta indarra lortzen dute "administrazio publikoen, gizartearen eta Nafarroako ekonomiaren aurrean merezi duen ikusgarritasuna, ordezkagarritasuna eta protagonismoa irabazteko".

Nafarroako merkataritza elkarteetako kideak nabarmendu

dutenez, "zoritarrez, saltoki txikiak pixkanaka desagertzen ari dira, herrietako merkataritzaguneetan etengabe ixten ari diren saltokien lekuko gara, hutsik dauden lokalen hazkundearen lekuko, eta horrek gure herri eta hirietako erdiguneetan eta auzoetan dakarren narriaduraren lekuko". Horregatik, nafarrei dei egin diete "hemen eta orain apustua egiteko tokiko merkataritzaren alde, eta gure herri eta hiri barruan merkataritza-eskaintza nahikoa duen eredu trinkoaren alde".

Lan kategoriek mobilizazioak eragin dituzte Sunsundeguin

Enpresak zigortu egin du bere kategoriatik gorako lan bat egitera ukatu den LABeko delegatu bat

ALTSASU

Dozena bat egun lanik eta soldatarik gabe. Sunsundeguko zuzendaritzaren zigor hori jaso du langile batek, LABeko ordezkari sindikala ere badenak. Langileak bere lan kategoriatik gora zegoen lan bat egiteari uko egin ondoren etorri da zigorra. Aurretik sekula zigorrik jaso ez duen langilea da zigortua. Sindikatu abertzaleak jakinarazi duenez, lege bidea abiarazi dute, batetik, langileari zigorra kentzeko eta, bestetik, Nafarroako metalgintzako hitzarmenean jasoa dagoen bezala, enpresak lanbide kategoriak aitortu zituzten. Bestetik, enpresa batzordeak deituta, langileek delegatuaren kontrako zigorra bertan behera uztea exijitzeko astearte goizean protesta bilkura egin zuten.

LABetik azaldu dutenez, "aurreko krisian hartutako doikuntza neurrien ondorioz Sunsundeguin lan baldintza ezberdinak daude. Ez dira kategoriak behar den bezala onartzen eta ez da metaleko hitzarmena betetzen". Egoera hori bideratzeko 2017an enpresa akordioa sinatu zuten zuzendaritzak eta langileen ordezkariak (LAB barne). Akordio horren ondorioz, lanbide kategoriez arituko zen batzorde bat sortu zuten. Sindikatu abertzaleko kideek gaineratu dutenez, "hiru urte eta gero ez zaio irten biderik eman gaiari".

Sindikatuak testuinguru horretan kokatu du Sunsundeguko langileen ordezkariari jarritako zigorra: "enpresak langile guztien kategorien gaia heltzea ekidin nahi du neurri eredu-garriak inposatu eta langileak mehatxatuz". LABek Sunsundeguiari exijitu dio "gure delegatuaren kontrako zigorra bertan behera uztea eta langile guztiei dagokien kategoria onar diezaie-la, benetan egiten dituzten funtzioen arabera".

Rebeka Mendoza Caro IRURTZUN

Ouarda Dira Irurtzunen bizidana. Haurrek Atakondoa eskolan D ereduaren ikas dezaten aukeratu du, nahiz eta A eredu ere egon.

Non eta zein ereduaren ikasten dute zure seme-alabek?

Irurtzongo Eskola Publikoan, Atakondoa. D ereduaren.

Zenbat urte dituzte?

Sara da nagusia eta 12 urte ditu; Selma, bigarrena, 10 urtekoa; Rayan hirugarrena 8 urte ditu eta; Amira txikiak, 3.

Zertan oinarritu zineten D ereduaren aldeko hautua egiteko?

Txiki-txikitatik D ereduaren joan dira. Sara orain Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, 1. mailara doa, Selma Lehen Hezkuntzako 6. mailara, Rayan Lehen Hezkuntzako 3. mailara eta Amira Haur Hezkuntzako 1. mailara. Hona etorri ginenez, euskara ikastea beharrezkoa iruditzen zitzaien, gaztelera kalean hitz egiten baita. Gainera, lan egiteko euskara maila minimo bat izatea eskatzen dizute. Hemen bizi nahi genuela ziur ginen eta hortaz, D ereduaren aukeratu genuen. Irurtzongo bizilagun bat gehiago izan nahi genuen eta gure gizarteratzea errazagoa izateko D ereduaren aldeko apustua egin genuen. Halaber, noizbait beste herrialde batera joango bagina, euskara berriz erabili ez arren, hizkuntzak ezagutzea beti aberasgarria da.

Zergatik da D ereduaren A baino hobea zuendako?

Bagenekien gaztelera kalean ikasiko zutela. Horregatik, euskaraz izena ematea nahiago genuen. Euskara txikitatik ikastea errazagoa dela uste dugu, eta ez alderantziz. Gure ustez, nagusia zaren euskara ikastea zailagoa da.

Aholkurik eskatu zenuen?

Ez, gure erabakia izan zen. Baina informazioa eskatu genuen, gure kezkak argitzeke. Dena den, nahiko ziur ginen umeak D ereduaren hasiko zirela.

Informazioz eman zizueten? Zeinek?

Bai, ezagutzen dugun jendeari eskatu genion, eta Gizarte Zerbitzuekin bilerak izan genuen. Oro har, Gizarte Zerbitzukoek informatzen gaituzte eta zalantzak baldin baditugu argitzen saiatzen dira.

Erreferenterik bazenuten?

C.A. OSASUNA
GETAFE F.C.

APIRILAK 3, LARUNBATA
18:30-20:30
(IRRATIKO KONEXIOA 18:15ETAN)

EUSKALERRIA
IRRATIAREN BIDEZ



107.3 FM

beleixe

ZUZENEAN

948 567 074 | IRRATIA@BELEIXE.EUS

Ouardak D eredua aukeratu du, eta zuk?

OUARDA DIRA D EREDUKO SEME-ALABEN AMA

Lau seme-alaba ditu eta Atakondoa eskolara eramaten ditu. Atakondoa, A eta D ereduak daude, hurrek Haur Hezkuntzatik DBHko bigarren mailara arte bertan ikasten dute



Ouarda Dira, Irurtzunen bizi den berbera. REBEKA

Ez, egia esan, alderantziz. A ereduko erreferenteak genituen, ilobak eredu horretan izena emanda zeuden. Urteak pasa ahala, ilobek A ereduan ikasi dute eta orain dela gutxi arrebak txiki bat izan dute. Hurrek haien gurasoei arrebak txikia D ereduan izena emateko eskatu diete.

Euskara hitz egiten duzu?

Ez, eta damutzen naiz. Umeekin hitz batzuk ikasten ari naiz baina ez da aski. Lan eske joan naizen bakoitzean euskaraz ba al dakidan galdetzen didate. Are gehiago, aurtan euskaltegia apuntatzekotan egon naiz baina matrikulazio epetik kanpo nengoen. Beraz, datorren kurtsorako utzi dut, irailerako. **Zure bikoteak euskaraz daki?** Ez. Nire inguruan bakarrik nire koinata batek daki euskaraz.

"GU BERBEREAK GARA ETA RIFERA HITZ EGITEN DUGU. HAURREI BETI RIFERAZ EGITEN DIEGU"

"NIRETAKO D EREDUAN IZENA EMATEA GARRANTZIKOA DA. HAURREI AUKERA GEHIAGO EMATEKO"

Eta nola moldatzen zarete etxeko lanak egiteko?

Egia esan, haurrak nahiko autonomoak dira. Ez dute ia inoiz etxeko lanak egiteko nire laguntzarik behar. Dena den, euskarazko itzultzaile aplikazio bat deskargatuta dut eta umeek arazoren bat dutenean erabiltzen dut. Bakarrik lan egiten dute eta oso ondo ari dira. Eskolatik ez didate inoiz ezer esan eta umeek oraingo, ez dute inoiz emaitza txarrik izan. Halaber, gaur zurekin hitz egin baino lehen umeei galdera hau egin diet: atzera egingo bagenu, A edo D ereduan ikasiko zenukete? Eta denek D ereduan ikasiko zutela esan dute, zalantzarik gabe.

Etxean zein hizkuntzatan aritzen zarete?

Gu berberak gara, Rifekoak, eta Rifera hitz egiten dugu. Haurrei beti riferaz egiten diegu. Haurrak gaztelera, euskara eta rifera dakizkete.

Eta zuk? Zenbat hizkuntza dakizkizu?

Nik Rifera, arabiera, frantsesa eta gaztelera dakizkit. Rifera, tarifit ere deitua, berbereen hizkuntzen aldaera bat da. Rif eskualdeko hizkuntza da, Marokoren iparraldean, Melillan hitz egiten den hizkuntza bat da. 4 edo 5 milioi hiltun ditu. Garai batean, Kanarietan hitz egiten zen. Gainera, orain dela gutxi arte ikasteko era bakarria etxean zen. Nik ez dakit Riferaz idazten, ahozko hizkuntza bat izan baitzen. Rifera etxeko hizkuntza da, orain dela gutxi grafia arautu eta eskolan ematen hasi zen.

Hemen euskarak bizi duen egoerarekin alderatu genezake. Etxean ama hizkuntza Rifera izan arren, Marokoko kaleetan gehien entzuten den hizkuntza arabiera da.

Nik eskolan arabieraz eta frantsesez ikasi nuen, eta etxean gurasoek Riferaz erakutsi zidaten. Gerora, eskolan gaztelania ikasi nuen. Hona etorri baino lehen, gaztelera-dun elkarte batean nire maila hobetu nuen. Oinarrizko mailarekin hasi nintzen, abestiak gaztelera-entzuten eta letretako hitzak itzultzen nintzen. Aurrerago, berriak eta telesailak gaztelera-entzuten hasi nintzen. Azkenean, hona iristerakoan mintzatzeko maila nahikoa nuen. Dena den, gaur egun ikasten jarraitzen

dut, kalean, eskolan, parkean... beste gurasoekin gaztelera-entzuten hitz eginez.

Zer dela eta bukatu duzue Irurtzunen bizitzan? Gustatzen zaizue? Gu Al-Hoceima hiritik gatoz. Nire senarraren bi anaiak jadanik hemen zeuden, bera etorri zenerako. Gerora, beste laugarren anaia bat etorri zen. Hortaz, familia gertu dugu eta askotan elkartzeko gara, parkean, kalean... Herria gustuko dut, noski. Jendea atsegina da, herria nahiko lasaia, eta ez dugu bizitzeko inolako arazorik izan.

Zenbat urte daramatzazue hemen? Nik 14 urte, baina nire senarrak gehiago. Gure seme-alabak hemen jaio dira. Aiton-amonak ikustera joaten gara noizean behin, baina jada 4 urte ez ditugula aurrez aurre ikusi.

Beste bizilagun berri batzuek zuregan jo dute aholku eske?

Bai, gainera Gizarte Zerbitzu-koek guraso zalantza-entzuten bilera bat egitea eskatu zidaten. Bertan, nire iritzia eman nien. Niretako D ereduan izena ematea garrantzirikoa da. Izan ere, haurrei aukera gehiago ematen ari gara. Berdin du, beste herrialde batera joaten baldin bagara, hizkuntza bat ikasteak beti gehitzen du, ez alderantziz. Gure seme-alabei aberastasuna eta ondarea emanez.

Bilera aberatsa izan zen, izan ere bertaratutako batek bere alaba D ereduan apuntatu du. Nahiz eta zalantzak izan etxeko lanak egiteko orduan. Gutxika-gutxika etorkin asko haien seme-alabak euskal eredura apuntatzen ari dira. Adibidez, nire lagun baten 4 seme-alabak ere D eredura doaz. Nire ustez, D ereduan izena eman dugun guztiok ez gara inoiz damutzen. Beharbada, alderantziz da, A ereduan izena ematen dutenak damutu ohi dira.

Gurasoak umeei D ereduan izena ematera animatuko zenituzke?

Bai, ehuneko ehunera. Umeari lehendabiziko urteetan zaila egiten baldin bazaio euskaraz ikastea eskolatik bertatik abiatzen dizute. Lehen Hezkuntzan berdina pasatzen da, hurren batek zailtasunak izanez gero irakasleek A eredura aldatzea gomendatuko dizute. Beraz, ez izan beldurrik! Euskararen apustua egin ezazu, guk bezala!

Alfredo Alvaro Igoa URDIAIN

Igandean 70 urte bete ziren Aralarko santutegiko mezamutil hasi zinela. Hara joateko ez pistarik ez errepiderik ez zegoen garaian. Ordukoak berriitu ditu. **Nolaz bukatzen du Urdiaingo mutiki batek Aralarren?**

Don Inozentzio, Aralarko, kapilaua, Urdiainen egon zen apaiz. Lehenbizi eraman zuten Felix Etxabarri, gero ni, eta gero, atzetik, eraman zituen Mariano eta Migel Angel Zubiria.

Zergatik esan zuten gurasoek zu apezarekin joateko?

Kuanto han edukazio on bat hartu behar duzun, edo zerbait ikasi behar duzula ona.

Aurretik Aralarren egona zinen?

Ez, hura zen lehendabiziko aldia. Ni, sobra ere, nintzen gazte bat oso, ez dakit ba nola esan, beldurrik gabe joaten zena.

1942an suteak Aralarko ostatu txikitu zen. Zuk zer opatu zenuen han goian?

Neretako eliza eta etxea handia zen. Jende asko etortzen zen, eta zegoen oso kondizio txarretan. Ni harritzen naiz nola etortzen zen jendea leku guztietatik. Gaurko ostatu berria ez zegoen ezta ezer ere. Orain santutegirako dagoen sarrera luze horretan, hor jartzen genituen ohol batzuk asto batzuen gainean eta udan hor egoten zen jendea. Hor jartzen genuen egurrezko mostradoretxo bat eta han zerbitzatzen genuen ardoa, gaseosak (1,5 pezetatan salgai) eta zerbezak (El Leon).

Geroz, bestelako lanak tokatu zitzaizkizun.

Denetatik egiten genuen. Eta ikasi ere bai. Han genituen bi txakur handi, bi behi, untxiak ere ibili genituen. Nirekin batera zeuden Jose Mari Ustarroz eta Felix Etxabarri. Haiek ni baino zaharragoak. Ni haiekin ibiltzen nintzen, baina lana egiten zutenak haiek ziren.

Orduan, jateko faltarik ez.

Luziano Garziandia zen mandazaina. Beti zegoen zerbait igotzeko, eta egunero igotzen zen mandoarekin. Hark igotzen zuten haragia, ardoa, gaseosa, garga-ardoa, ogia eta behar ziren gauza guztiak. Ardoa eta zahagietan igotzen zen udazkenean negu guztirako. Baita ere gasolioa. Argia geneukan bateriekin. Bateriak kargatzeko han geneukan dinamoa bat eta hura mugitzeko diesel motor bat. Udazkenean horiek montontzen ziren, gero neguan problemarik ez ibiltzeko.



Julian Etxeberria Albiztur etxeko atean du Aralarko aingeruaren silueta. Ondoko argazkietan mutikoa zela Aralarren.

"Jendeak beti izan du San Migelekiko debozio handia"

JULIAN ETXEBERRIA ALBIZTUR ARALARKO MEZAMUTIL ZAHARRA

Urdindarra 1951ko martxoaren 28an, Aralarko santutegira mezamutil gisa joan zen, Inozentzio Aierbe Irañetarekin batera. 6 urte egon zen han, 15 urterekin bueltatu zen

Nolakoa zen neguko egun bat han?

Ateratzen zituen haizeak fistu batzuk! Haize boladak bazter guztietatik sartzen ziren. Urte batean esnatu ginen ohatzearen atzeko aldean elurbisutsarekin. Haizea ikaragarri. San Migelgo sarrera, atari handi hori, gainean leiho txiki bat dago, sakristiakoa. Elurra haraino igotzen zen, beti ere, haize boladekin, hura haize tokia baita. Elurra askotan. Baina gu gazte ginen eta ateratzen ginen egunero, eskiatzera, denbora pasa...

Goizter esnatzen zineten?

Ez. Han egunero 09:00etan meza eta 21:00etan arrosarioa izaten ziren. 08:30 aldera jaikitzen ginen. Gosalduta ondoren mezan laguntzea zen gure lehendabiziko lana. **Zein joaten zen mezara?**

"FAMILIA BAT BEZALA EGOTEN GINEN, ELKARREKIN. EZ GENUEN GEHIAGOREN BEHARRIK SENTITZEN"

Astegunez, inor ez. Han bizitzen ginen sei pertsona: apeza, hiru mutiko eta bi emakumezko. Haiek joaten ginen. Jaietan bai, jende asko joaten zen, leku guztietatik. Nahiz eta negua izan hara jendea eskiatzera edo dena delakora, beti joaten zen. Gipuzkoatik asko. Lekunberritik eta Baraibarretik igotzen ziren gora eskiekin. Orain Candanchura joaten den bezala jendea, orduan Aralarra joaten zen. Eta, horrela, jaiero-jaiero jendea; elurra bazen, eskiatzaleak, bestela, mendigoizaleak.

Eta udan, gehiago esango genuke, mendi ibiliak egitera.

Mezan lagundu eta gero zer?

Txakurrak ateratzen genituen kalera bitan, goizean eta arratsaldean. Behiendako belarra bildu, haiei belarra eman, ereiten genituen patatak. Etxerako sobratzen ziren patatak egosi, pulpa pixka batekin nahastu eta ematen genien behiei, belarraz aparte. Behien azpiak garbitu eta horrela. Han ez zegoen aspertzetik. Gauza batzuk obligaziozkoak genituen, bai, beste batzuk, deboziozkoak. Eskiak ere han egiten genituen. Felixek egiten zituen. Basora joan, lizar polit bat bilatu, hura lehertu, zepillatu eta ongi egin eta, gero, pertza batean sartzen genuen, ur beroan eta pixka bat egosten den garaian molde batean sartzen genuen. Beti horrelako gauzak egiten. Eta han ondo jaten genuen. Arrainik ez genuen jaten, baina haragia jaten genuen egunero. Horregatik geunden lodi samar.

Animaliak non sartzen zenituzten?

Orain konpontzen ari diren Lakuntzetxe edo Deierrri etxean. Hori elur tokia da. Orduan eraijin bat zegoen bi ateak elkartzen zituena. Lakuntzentzen sartu eta lehendabiziko zegoen sukalde bat, zeudenak txakurrak eta egiten genuena sua, patatak, pulpa eta denak egosteko behiendako. Gero bi behiendako eta txahalarendako tokia zegoen. Aurrerago untxiak zeuden. Eta aldiren batean oilo batzuk. Eta azkenean zegoen orain kalean dagoen ur biltegia. Ura teilatutuan zegoen. Han punpatxo elektriko bat ibiltzen genituen etxean banaturik genituen beste biltegi batzuk.

Inozentziok eskolaren bat edo dotrina ematen zizuen?

Jakina, irakasten zuten. Irakurri egiten genuen bastante, han periodikoa egunero bi hartzen zituen, Nafarroakoa eta Gipuzkoakoa. Gainera, liburu asko zituen Don Inozentziok, mota guztietakoak. Bakoitzari gustatzen zitzaion hura irakurtzen genuen. Aurreratua zen eta denetariko liburuak eta aldizkariak ekartzen zituen. Denetarik ikasten genuen.

Telefonia bazenuten?

Garai batean omen zegoen telefonoa bakarrik Zamartzetik Sanmigelera, partikularra-edo. Ni joan nintzen garaian Telefonica edonazionala zegoen. Orduan Uharte Arakilen teknikari bat egoten zen eta aldi behin igo-



tzten zen gora errebisatzera kableak, hau eta beste. Sanmigelen bi bateria handirekin zuten. Haiek, sobra ere, ematen zuten indarra eta harekin ibiltzen genuen. Orduan zuzeneko lotura genuen Uharte Arakilekin eta Iruñearekin. Baina, askotan neguan, lantxurdarekin hartzen zuen pisua kableak eta egiten zen eten. Orduan, eskiak hartu eta jaitsi. Kable batzuk lotu eta martxan. Inkomunikaturik ez gara egon sekula ere.

Familiarekin harremana, nola?

Gutxi. Kartaren bat. Jaisten nintzen herrira bi aldiz urtean: aste bat festetan, Sanpedrotan eta gabon aurretik beste aste bat pasatzen nuen. Eta bitarte horretan, gutxi. Han elkarrekin egoten ginen, familia bat bezala. Ez genuen gehiagoren beharrik sentitzen. Han jende gazte asko ibiltzen zen, hizketaldia, hau eta beste. Helduak bideberria egin zen garaian etorri ziren..

Udaberrian artzainak eta artaldeak igoko ziren mendira, ezta?

Bai. Nafarroako artzainak joaten ziren domekan mezara. Eta Uharteko artzainen ardiak egoten ziren Sanmigelen eta Artxuetan,

inguru horretan. Haiekin, beste jende askorekin bezala, joaten ziren mezara eta gero gelditzen ziren gosaritarara. Haiek ere egun bat jendearekin egoteko aprobetxatzen zuten. Hitz egiteko. Zeren bakarrik egonda, gero hizketarako gogoia egoten da.

Basolanetara ere igoko ziren.

Uhartek baso asko dauka. Urte batean lantegi handia egin zuten. Markatzeko garaian lo han egiten zuten. Gero joaten zirenak zuhaitzak botatzera Nafarroa iparraldeko jendeak ziren. Haiek egiten zuten txabola eta, basogizon bezala, han bizitzen ziren. Domekan joaten ziren mezara. Haiek ere han jai eguna pasatzen zuten, jiji-jajaka, haiek ere jende artean egoteko gogoekin. Gero jarri zuten Uhartera kablea eta harrekin jaisten zituzten enborrak, ez zegoen bideberririk. Gero ikazkinak etorri ziren.

Ikatz edo egurra ibiltzen zenuten?

Garai hartan egur asko egoten zen, haizeak botatakoak-eta. Egurra egiten genuen eta mandoarekin igotzen genuen Sanmigelera, urte guztirako. Mandoe-kin ekartzen zuen Luzianok. Sarrera ondoan jartzen

genuen. Negurako egur pila galanta egiten zen. Gero lehertu. Neguan bi su genituen, beheko sua eta sukalde ekonomikoa, jana prestatzen zutena. Geneukan zerra zirkularra, motor elektriko batekin eta harekin mozten zen sukaldearen neurria.

Su eta sukalde horiek non zeuden?

Eliza sarrerako pasabide luze horren gainean zegoen sukaldea eta gain horretan zegoen beste toki bat zena bizitza. Han zeuden apezaren, gure, emakumezkoen gelak eta komuna. Hura etxe-koendako. Han zegoen beheko sua. Su hori, etortzen zen Korpus Eguna, etortzen zen... jende guztiak nahi zuen hara joan bazkaltzera. Tokirik ez zegoen. Hura izaten zen... Gaur egun ezin pentsatuko gauza: hainbeste jende hain leku gutxian!

Ateak urte guztia zabalik zeuden?

Orduan Sanmigelgo ate guztiak egoten ziren zabalik. Han ez zegoen bildurrik ezertarako ere. Gero etorri zen madarikatu hori eta ostu zuen erretaula (Erik belgikarra, 1979ko lastailaren 25etik 26rako gauean). Eta orduan hasi ziren gauzak ixten.

Pentsatzen du Inozenziok erretaula azalduko zizuela?

Ni egon nintzen garaian tapatuta egoten zen. Orduan elizetan egoten diren egurrezko figuradun erretaula zegoen. Erretaulak bazeukan bere famatxoa eta jendeak meza ondoren ikusi nahi zuen. Ondoren Jose Marik edo nik hango argimutilak kendu eta bi ate handi zabaltzen genituen. Aldare gainera igo (paretaren kontra zegoen) eta bonbillatxo batekin azalpenak ematen egoten ginen.

Jendea aingerua gurtzera propio joaten zen?

Jendeak beti izan du San Migel-eko debozio handia. Orain itxita egoten da. Kapera txikian dagoen San Migelen irudi hori da "bigarrena". Lehen han egoten zen egiazko irudia, eta joaten zenean herrietara, ez zegoen. Meza eta arrosarioa kapera txikian errezatzen genituen. Domekan meza nagusia izaten zen, harmoniuma bazeukan, Felixek ongi kantatzen zuen, eta aldare handian.

Pazko igandea, Korpus Eguna eta San Migel eguna ziren egun handiak?

Baraibarrera egiten den irteera hori ez zen orain bezala egiten. Orduan San Migel herriz herri ibiltzen zen, beti



pausokan. Luzio, Exkurre, uhartearrak eramaten zuen. Apaiz bat joaten zen mandoarekin. Herriz herri dena pausokan ibiltzen ziren. Hori aldatu zen. Hasi zen garaia dena autoz egiten. Eta erabaki zen zerbait pausokan egitea. Pazko egunean nolabait joaten den Larraunera, Sanmigeldik Baraibarrera oinez, pixka bat tradizioari segitzeko.

Garai batean Sakanako herri guztiak sanmigelera erromerian joaten ziren. Ezagutu duzu hori?

Maiatzaren 8an, San Migelen agerkundean, joaten ziren uhartearrak. Arakilgoak joaten ziren Korpus Zortziurrenean, larunbat batean. Lakuntzarrak ere. Irañetakoak ere bai. Beste herriek aurretik utzita zuten.

Korpus Egunean ere jendea poleki joaten omen zen.

Jendea, ugari eta ugari. 1950ean hartu zuten euskal jai bat bezala eta Erriberatik eta Falangekoak etorri ziren. Eta zalaparta sortu zen. Eta orduz geroztik iskanbila Korpus Egunean. Prozesioa egiten zen. Errepublikara garaian prozesioak herrietan debekatu zituzten. Baina Sanmigelen ez,

mendian

zegoenez... Eta urte bat bera ere ez zen gelditu prozesiorik egin gabe. Fededunak prozesio horretara joaten ziren. Bi egunetan izaten zen: Korpus Egunean eta Korpusen Zortziurrenean. Gero euskaldun jendeak hasi ziren joaten. Prozesio garaian botatzen zituzten etxajuekin ikurrina txiki batzuk gora, eta ez dakit zer. Guardia civilez beteta. Beti egoten zen halako liskar bat. Baina jende asko. Batzuk fedearengatik, beste batzuk egun bat euskaldun jendea inguratzen.

San Migel eguna, oso garrantzitsua.

Bai. Izaten ziren beste bi egun. Asolbizio Eguna, abuztuko azkeneko jai. Eta gero San Migel eguna. Orduan joaten zen jendea bezperatik. Han gaua nola-hala pasatzen zuten, zeren han hainbeste jenderendako tokirik ez zegoen. Eta hurrengo egunean fededunak konfesatzen ziren. Joaten ziren kaputxinoak Altsastutik, agian dozena erdi bat, eta goizean konfesatzen ziren. Beste batzuk goizean joaten ziren oinez Uharte Arakildik edo guardetxetik. 06:00etan hasten ziren mezeekin. Absolbizio Eguna ez dago, baina San Migel Eguna, oraindik, segitzen du jendearekin.

Inozenzio Aierbe Irañeta entzunda. Zer gogoratzen duzu?

Oso gizon eta apeza majoa. Kulturadun jendea zen. Kultura asko ikasi genuen berarekin. Esan dizudana, ekartzen zituen liburuak eta aldizkariak. Felix irratiek egiten ikasten egon zen, elektrizitateak, halako gauza asko. Gaur egun eskulanak esaten diren aldizkari horiek asko ekartzen zituen. Orduan neguan han egoten ginen, zeren erreminata asko zegoen han. Gauza asko ikasi nituen. Urdiainen egon zen apaiz. Garai hartan jai nintzen eta ni bataiatu ninduen. Eta ezkondu ere. Andregai neukan Altsasukoa eta orduan joera zegoen andregaiaren herrian ezkondu beharra. Eta Altsasun ezkondu ginen, baina Don Inozenziok ezkondu gintuen.





Irurtzungo kiroldegian bigarren txertoa apirilaren 21ean jasoko dute. ALFREDO ZELAI

Txertaketaren segida Irurtzunen eta Altsasu izanen da

Atzo egon ziren Irurtzunen eta bihar Altsasan. Urdiainen baheketa eginen dute ostiralean

SAKANA

COVID-19 gaitzari aurre egiteko ezinbesteko bitartekoa izanen da txertoa. Osasunbideak lehen-tasunezko sektoreetako profesionalen txertaketarekin batera 80 urtetik gorako pertsonen txertaketari ekin zion. Irurtzungo oinarritzko osasun eskualdeko (Sakanan Arakil eta Arruazu artekoak) 478 pertsonak atzo Irurtzungo kiroldegitik pasa ziren. Pfizer etxearen txertoaren lehen dosia jaso zuten. Osasunbidearen txertaketa taldea ostiralean, atzera ere, Altsasura etorriko da. Burunda pilotalekuan

585 altsasuar, olaztiar eta zior-diari txertoaren bigarren dosia jarriko diete 09:30etik 19:00etara.

Baheketa Urdiainen

Martxoaren 21etik asteartera arte 22 positibo zenbatu dituzte Urdiainen, 26 hilabete hasieratik zenbatuz gero. Egoera ikusita Osasunbideak erabaki du COVID-19 positiboak atzemateko urdindar guztiak baheketara deitzea. Osasunbideatik urdindarrak banaka hots eginen dituzte hitzordua emateko. Baheketa ostiralean eginen dute frontoian, 09:00etatik 19:00etara.

DUELA 25 URTE...



Altsasun gasbidea zabaltzen

Zelai puntan, Lanbide Heziketa institutuaren inguruan, Gas Erregulazio eta Neurketa jarri zuen Gas Navarra enpresak eta handik hasi ziren gasbidea zabaltzen Zelai kalean barna. Altsasuko industrialdeetan bi urte lehenagotik zuten gasa. Irurtzunen ere aurretik baliatu zezaketen erregaia, baina ez etxarriarrek edo altsasuarrek. Isidoro Melero, Altzania eta Zumalakarregi plaza ingurura zabaldu zen gasbidea eta altsasuarrek garagarrietatik aurrera erabiltzeko aukera izan zuten.

Lehen mailako osasun arretaren alde apirilean

Nafarroako Osasun Plataformak apirileko asteazkenetan, 11:00etan, osasun etxeen parean kontzentratzeko deia egin du. Heldu den asteazkenean Europako deialdiarekin bat egin eta "pandemiarekin inork ez dezala irabazi" aldarrikatuko dute

SAKANA

Martxoaren ondoren apribila dator eta hilabete berrian ere segida izanen dute asteazkenetako 11:00etako osasun etxe pareko kontzentrazioak. Nafarroako Osasun Plataformak deitu ditu mobilizazio horiek lehen mailako kalitatezko osasun arreta publiko eta unibertsala bermatzeko. Horretarako, Osasunbideari eskatzen diote lehenbailehen "epe laburreko konpromiso zehatzak har ditzala lehen arretako osasun arretako arazoei konponbidea emateko. Horiek guztiak balio behar dute eredu integral baterantz jotzeko, ez eredu asistentzial hutsean gelditzeko. Beranduegi gabiltza, eta neke orokorra dugu".

Nafarroako Osasun Plataformak gaztigatu duenez, Osasunbideak "ez du kontuan hartzen bere planteamenduekin arrakala handitzen ari dela teknologian, ekonomian, gizartean eta lurraldean". Plataformako kideek nabarmendu dutenez, "herritar guztiak ez dakite tresna telematikoa erabiltzen eta herritar guztiak ezin dituzte eskuratu. Gainera, landa-eremuetan arreta eskasagoa emateko arriskua dute, egungo baldintzetan ezin izanen bailukete garatu telepresentakuntza eta telelaguntza, ez



Altsasuko osasun etxe parean atzo egindako bilkura. JUAN PEDRO HIGUERO.

burokrazia murriztu edo ospitaleetako espezialistekin kontsultak egin".

Europako deialdia

Apirilak 7 Osasunaren Mundu Eguna da. Eta plataformak bat egin du Osasuna eta Gizarte Babesa Pribatizatzearen eta Merkaturatzearen Kontrako Europako Sareak egin duen deialdiarekin. Aurten deialdiak "pandemiaren kontrako babesa ekitate eta unibertsaltasun irizpideen arabera bermatzeko eskakizuna" izanen du oinarri, "sektore pri-

batuaren irabazi zaletasuna zailantzen jarritz". Plataformatik adierazi dutenez, "horretarako, ezinbestekoa da osasun sistema publikoak indartzea eta patenteek guztiok txertoak eta tratamenduak eskuratzea oztopatzea eragotziko duen jarduera irmo bat egitea". Deitzaileek nabarmendu dutenez, "hau ez da onura pribatuetarako unea. Pandemia gainditzeko modu bakarra irtenbide kolektibo bat aurkitzea da: txertoak eta tratamenduak, pertsona guztiendako libreki eskuragarri egon daitezela".

Radar finkoak egunero 22 isun jarri zituen joan den urtean

Guztira 8.221 trafiko salaketa jarri zituen gehiegizko abiaduran gidatzeagatik, 2019an baino %45 gehiago

ALTSASU

Trafiko Zuzendaritza Nagusiak radar finko bat jarria du Sakanako errepide sarean, Iparraldeko Autobiako (A-1) 401,5 km puntuan dago, Gipuzkoako norabidean, zerbitzu bide baterako

irteeraren aurretik. Gehiegizko abiadura gainditzen duten ibilgailuei argazkia egiten die eta gidariak isuna jasotzen dute etxean. Halako 8.221 isun jarri zituen Altsasun dagoen radarrak 2020an, egunean 22,45 isun.

Lekunberri parean Leitzarango Autobian (A-15) dagoen radarra da Nafarroan isun gehien jartzen dituen. Altsasukoa bigarrena da. Azken bost urtetan radar horrek 41.278 isun jarri ditu, egunero, batzaz beste, 22,59 isun. Trafiko arau hauste horiek guztira 4.457.800 euroko isunak ekarri dituzte. Baina ia gidari denek ordainketa azkarra egiten dute eta isunaren erdia pagatzen dute horrela. Beraz, 1.932.876,41 euro dira radar horren bidez jasotakoak.



Denbora-pasak

guaixe

Aurkitu lau lore bikiak eta
margotu itzazu udaberria iritsi dadin


Nafarroari buruzko bertso jarriak



Eneko Lazkoz Martinez
(Etxarri Aranatz)

Iruñean, 2021-02-13

Doinua: kintak jarrita ondorenian



Nafarroa da esparragoa,
piperra eta _____
Estafetako zezena edo
Pirineotako _____.
Nafarroa da Agoitz Baigorri,
Corella edo _____,
Bardeetako basamortua
eta Zarauzko _____.

hartza | Arantza | mahatsa | hondartza

Nafarroa da Gorka Urbizu
edo El Drogasen _____
Nafarroa da Opus Dei eta
harek dakarren _____.
San Jurjo ere Nafarroako
ordezkaritza _____
baina San Jurjo generala ez
baizik eta _____.

España | kapitaina | kaña | bikaina

Burua altxa ezkerro harro
legokela dio _____
osasanak ez baitu irauten
ehun urtetik gora _____.
Koloretako poeten eta
mendeurren _____
euskarazko bi hitz eta guzti
geratu zaie _____.

ereserki | ederki | beti | Zilbeti

Armaila berri bezain hutsetan
sekulako _____
itsu itsuan gure Serafin
Zubirik kantatu _____.
Guk primeran nahi genituzkenak
berdindu ta daude _____
Osasunaren euskara eta
euskararen _____.

oihartzuna | osasuna | zuna | hutsna

Gure Lingua Navarroruma
gure euskara _____
Vascuencearen legearekin
hiru zati _____.
Euskaldun denak Nafarrak gara
ohitura da _____
hobe genuke Nafar guztiak
euskaldunak _____.

esatea | izatea | maitea | gizartea

Agintarien ajola eza
euskal hiztunon kezka _____
baina gu ere agian behar
bezelakoak ez _____.
Gutako askok ez al du uzten
alde batera _____
txakurrei edo umei txikiei
hitz egiteko ez _____.

da | euskara | bada | gara

Euskaldunontzat dihoan eran
legedia _____
herritar gisa ere ez al goaz
martxotik hona _____.
Zuek ez dakit baina ni behintzat
hasia nago _____
azken aldian ari baitira
muga zaharrak _____.

larritzen | bihurritzen | urritzen | berritzen

Tabernen faltan parkeak bete
botila eta _____
Gaiarre erdi betea dago
erabat hustua _____.
Bardeek ere mugak dituzte
ez dago esan _____
txoriek hegan egin dezaten
oinezkoentzat _____.

bakarrik | Labrit | beharrik | tetrabrik


Baldintzatua ere nola ez
bertsolarion _____
entzulearen harreta eta
sortzailearen _____.
Pentsa noraino espeziala
den gaur ospatzen _____
historiako gaurik gabeko
lehenengo bertso _____.

garduna | eguna | garuna | duguna

Nafarroari begirada bat
zen hau nere _____
eta hara zer ikasi dudan
jartzean paper _____.
Bai Erriberan bai Baldorban
bai Urepeleko _____
nafarro asko biltzen direla
Nafarroa _____.

larrean | baldarrean | bakarrean | aurrean

Gurutzegrama



Horizontalak

1. Irati ... Sesma argazkiko futbolaria
3. Bi haizpetan kokatzen zen gaztelua
6. Urdaingo iparraldean dagoen haitza
8. Aitor ... Carrera argazkiko Irurtzungo alkatea
10. Isurketak gelditu dituzten eskatu duten Arbizuko erreka
13. "Sakanako emakumeak martxan" leloarekin egin den martxa morea
14. Euskaraz modu naturalean bizi den herria
15. Ataun eta Etxarri Aranatzeko artean dagoen portua
16. Unanuko inauterietako pertsonaia
21. 25 urte egin dituen Sakanako urtegia
23. Ezkurdia eta Zabaletak 2018an irabazi zuten txapelketa
24. Egjarretako ... Santiagoko ermita
25. Hamabost urteren ondoren agur esan duen musika taldea

Bertikalak

2. ... Gallo San Roman argazkiko Sakanako Mankomunitateko Berdintasun teknikaria
4. Altsasuko industrialdea
5. ... Diez aurten saskibaloia utzi duen altsasuarra
7. Igor ... Lizarraga argazkiko txirrindularia
9. Irurtzungo euskararen etxea
11. Sakanako isurialdea
12. Hiriberri Arakilen hego-ekialdean dagoen herria
17. Reggaeton feminista egiten duen argazkiko olaztiarra
18. "... loa" Castillo Suarez Garcaren azken album ilustratua
19. Aztarnak agertu diren olaztiko harrobia
20. Jon ... Lisarri Ihabarren bizi den argazkiko antzerkigilea
22. Irurtzungo areto futbol taldea



1



2



7










8



17





20



Zein da robotaren itzala?



Sakanako janaiye



1. EIGOY

11. AFKEI

2. AZGIAT

12. RANTZRO

3. PLIENR

13. IRAGYEA

4. AYGERI

14. ARSARA

5. IPALKU

15. DUEER

6. REIRA

16. AMST

7. BUTXELE

17. NIXIDTL

8. OKLESLO
















18. RDIE

9. ETILKOXOAT

19. ABUIIL

10. KEZRUAUA

1. TIXBAUA



Dermioen letra zopa




A	T	E	U	R	I	M	F	I	M	U	K	M	L	T	P	T	C	S	K
A	L	I	S	O	R	A	Z	U	R	I	J	F	J	O	Z	X	G	G	Z
A	C	Y	A	L	E	R	R	A	S	U	E	C	L	N	V	T	O	O	H
D	N	B	I	S	R	P	U	Z	M	N	C	P	S	I	G	I	X	R	R
P	A	G	D	A	I	K	H	S	U	E	O	U	S	Q	N	P	A	I	P
M	R	M	R	I	E	H	W	A	X	L	H	I	U	M	Q	Z	R	Y	B
I	B	I	A	T	S	T	Q	M	I	A	A	G	P	Z	N	A	Z	J	A
R	I	O	G	A	T	E	I	T	N	T	O	B	E	Z	M	R	A	O	T
A	L	B	I	V	L	X	U	U	G	I	T	N	Z	T	B	R	N	J	I
R	T	J	T	J	Y	R	V	J	O	X	Z	I	T	A	E	U	Z	Q	G
M	Z	R	S	A	R	F	L	O	T	T	I	Z	U	L	A	L	A	A	I
U	A	Y	A	I	W	N	L	Y	X	A	A	V	R	O	K	I	B	I	B
N	U	U	Z	S	I	X	R	G	A	T	G	N	U	T	A	A	A	T	E
O	M	H	A	J	Q	I	F	F	B	M	A	J	G	I	R	N	L	Z	L
A	L	E	T	O	S	T	N	A	A	D	K	D	N	O	T	F	T	U	T
U	P	V	N	L	K	M	I	I	L	Y	E	Y	I	M	O	Y	W	B	T
N	N	R	U	K	A	M	Z	I	R	A	R	U	D	C	P	O	G	I	V
D	S	Q	Q	W	K	E	E	R	Z	S	R	K	R	O	H	B	S	D	I
I	O	L	E	Q	V	H	D	N	U	J	E	V	U	U	S	Y	Z	E	J
Z	H	R	P	C	F	Z	V	X	P	N	R	H	B	Q	S	R	A	I	D

- POLPOLITURRI
- ARIZMAKUR
- MOITOLATZ
- AILURRAZPI
- ATXITALEN
- ERREKAGAIZTO
- SORAZURI
- MIRUETA
- MUXINGOTXABAL
- BURDINGURUTZE
- ARMUNOAUNDI
- MUGARRATE
- USARRE
- AITZUBIDE
- POTRAKA
- ASTIGARDIA
- BATIGIBEL
- ARZANZABAL
- SAITA
- ARBILTZAU
- ANTSOTELA

	=	
	=	
	=	
	=	
	=	

Zenbat daude bakoitzetik?

Non daude Sakanako txokoak?



Lotu esanahi bereko hitzak

- | | |
|-------------------|---------------|
| 1. Minbiatu | _ Marigorri |
| 2. Durrin | _ Etxekolanak |
| 3. Arrikezo | _ Garraio |
| 4. Zardeittu | _ Harrikada |
| 5. Matxite | _ Blai egin |
| 6. Galtierro | _ Ganbara |
| 7. Inguutu | _ Minberatu |
| 8. Beixi | _ Laguntzaile |
| 9. Ttuttulu | _ Zahartu |
| 10. Txelatu | _ Bereizi |
| 11. Ttittemeru | _ Urruti |
| 12. Artio | _ Artio |
| 13. Itxesure | _ Gozozale |
| 14. Kattalingorri | _ Tximeleta |
| 15. Launzale | _ Inozoa |
| 16. Falfal | _ Itogina |
| 17. Ganbaatxo | _ Burrunbada |
| 18. Irruti | _ Harro |
| 19. Karraio | _ Inguratu |
| 20. Limitti | _ Mirua |

Eguzki sistema

Bilatu 10 ezberdintasunak



Erantzunak
apirilaren 12an
guaixe.eus-en

Bakaikuko plazan desfibriladorea jarri dute

Udaletxeko izkinan dago, bideberriko arranpatik gora jota erraz iristeko moduan

BAKAIKU

Bakaikuko Udalak udaletxean desfibriladorea jarri du, postontziaren ondoan. 2.000 bat euroko inbertsioa egin du hura jartzeko. Desfibriladorea jarrita dago eta bakaikuarrek hura erabiltzeko prestakuntza jasoa dute, joan den urteko ilbeltzean lehen sorospenei buruzko ikastaroa egin baitzen herrian. Izan ere, bat-bateko bihotz-geldialdia gertatzen denean segundo guztiak garrantzitsuak dira. Ezinbestekoa da azkar eta modu eraginkorrean jardutea osasun profesionalak iritsi bitartean. Baita gaixo dagoen pertsonarendako prozesua itzulgarria izan dadin eta biktimak egoera kritiko hori gaindi dezan. Horregatik, bakaikuarrak oinarritzko bihotz-biriketako bizkortzea nola egin ikasteko izena ematera animatu dituzte udaletik.



Desfibriladorea jarrita. BAKAIKUKO UDALA

Bestalde, udalak borondatezko auzolanerako deialdia egin du. Gaur izanen da, 09:30ean, eta eskolen eraikina zenaren beheko solairuan behin behineko erabileran anitzeko gela eta haur eta gazteendako gela egiteko gutxieneko lanak egingen dira.

Iturmendin eta Olatzagutian lantegiak salduta

Iturmendiko Udalak enkante bidez bi baso aprobetxamendu saldu ditu. Udalak enkantean jarritako hasierako prezioa baino 19.093,97 euro gehiago eskuratu ditu Basabea eta Altzaniatik eta bargatik aterako diren baso aprobetxamenduengatik. Lehenengoatik Barbiur SM enpresak 41.680 euro pagatu ditu. Baso aprobetxamendua Auntzetxalde eta Guardaren txaboleta para-jeetan dago eta 967 pagoz osatuta dago. Bigarren baso aprobetxamendua Explotaciones Zubillaga Saralegui SMK eskuratu du 77.171 eurotan. Aiztondoko lantegiak, berriz, 1.179 pagoz osatuta dago.

Olatzagutiko Udalak, berriz, Arpana formacion forestal SM enpresari saldu dio Sagarmin-saroi, Muskilin, Lesundegi eta Kintanatzekin dauden lantegiak. Udalak 17.552,38 euro (BEZ kanpo) eskatzen zituen eta enpresak 32.752 euro ordainduko ditu. 1.013,4 m³ duten pago, Amerikako haritz eta bertako haritz dira.

Dinamizazio soziokulturaleko zerrenda osatuko da

Ibarrean dinamizazio soziokulturaleko lanak egiteko aldi baterako kontrataziorako izangai zerrenda bat sortuko du Arakilgo Udalak. Oposizio lehiaketa bidez eta hautaprobak eginez osatuko du izangai zerrenda. Han dagoen pertsonaren bat dinamizatzaile izendatuz gero, esku hartze soziokulturaleko proiektua diseinatu, planifikatu eta gauzatu du udalerrirako. Ibarra 12 herriz eta 11 kontzejuz osatua dago. Dinamizatzaileak haiekin eta udalerriko elkarteekin eta mugimenduekin harremanean egon beharko du.

Zerrenda indarrean izanen da agortzen den arte. Dinamizatzaile izendatutako pertsona udalaren aldi baterako lan kontratudun bilakatuko litzateke. Bere lanpostua lanaldi erdikoa izanen da eta B mailako ordainsariak izanen ditu. Interesa dutenek euskara jakin beharko dute, C1 maila edo baliokidea eskatu du udalak. Eskabideak hilaren 26ra arte aurkez daitezke.

Plazarako estalpe laukia aukeratu dute

Igandean egin zen herri galdeketa bidez arbizuarren plazan estalpe finkoa jartzea erabaki zuten, eta, gainera, lauki itxurako estalpearen alde egin zuten. Lanak finantzatzeko udalak dirulaguntza eskatuko du

ARBIZU

Aurreikusitako baino bi aste beranduago egin zen Arbizun plazarako estalpeari buruzko herri galdeketa. Hasiera batean martxoaren 14rako aurreikusia zegoen, baina bezperan Fran Balda Arañaren heriotzak herria jota utzi zuen, eta udalak galdeketa atzeratzea erabaki zuen. Hala, plazan estalpe finkoa jarri behar ote den erabakitze herri galdeketa egin zen igandean Arbizun. 16 urtetik gorako 916 arbizuarrek zuten botoa emateko aukera. Udalak antolatutako galdeketa arbizuarrek bi galdera erantzun behar zituzten. Lehenik, plazan estalpe finko bat nahi ote zuten. Galdera horri 253 arbizuarrek erantzun zioten, erroldaren %27,62k: 175k baietz (%69,16), 76k ezetz (%30,03) eta bik boto txuria eman zuten (%0,79).

Lehen galderak estalpe finkoaren aldeko arbizuarren jarrera azaldu zuen. Eta zeuden bi proposamenen artean gustukoena



Plazan jarriko den estalpea.

zutenaren aldeko botoa emateko aukera izan zuten arbizuarrek. Lehendabiziko galdera baino 15 erantzun gutxiago izan zituen bigarrenak, 238, erroldaren %25,98. A aukeraren alde 80 boto izan ziren (%33,61) eta 122 B aukeraren

alde (%51,26), txuriak, berriz, 36 izan ziren (%15,12). Beraz, lauki formako estalpea jarriko da plazan. Hura finantzatzeko udalak Landa Garapenerako Planeko laguntza deialdira aurkeztuko du estalpe proiektua.

Proposamena

Aurreikusitakoaren arabera, lehenik plaza guztia maila berean jarriko da. Horretarako, plaza gurutzatzen duen bideko arrantza Uhalde kalerantz eramane da. 17,5 metroko zabalerako aldeak dituen "lauki" itxurako estalpe bat jasoko da. Berez, oktagon erregularra da eta 306 metro karratuko azalera hartuko du. Burnizko 8 zutabe borobilen gainean jasoko da estalpea. Teila-duraren egitura nagusia metalzkoa izanen da, egurrezko zenbait zatirekin. Teilatua 16 hiruki inklinatutan banatuko da, "m" itxura sortuz. Hiruki horien erditik eguzki argia pasatuko da.

Estalpea baino gehiago, oinezkoendako eremua ere

Arbazuarrek esandakoekin eta arkitektoen laguntzaz, estalpea forma hartzen hasi da

ARRUAZU

Herrian estalpe finko bat behar ote den eta, beharrezkoa bada, nolakoa eta non egon behar lukeen zehazteko bigarren batzarra egin zen Arruazun martxoaren 20an. Gorka Ovejero Ganboa alkateak azaldu duenez, arkitektoen azalpenen laguntzarekin arbizuarrek estalpea zein materialekin egin zitekeen aztertu zuten, zein egitura izan beharko lukeen, zein forma... Baldintzatzaileak ere kontuan hartu zituzten: ibaiak gainezka egiten duela eta plazaraino iristen dela, estalpeko tei-



Gaur egun dauden karpak. ARTXIBOA

latuak argia pasatzen utzi behar duen edo ez, estalpean eguzki plakak jartzeko aukera eman behar duen edo ez... Azken horiek kontuan hartzen badira, material batzuk besteek baino erraztasun gehiago ematen dituztela azaldu zuten arkitektoek.

Ovejerok gaineratu duenez, "estalpea zehazteko batzarrek proiektu zabalago batean bukatu du". Batetik, Arruazun ibilgailuak aparkatzeko espazioak zehaztea. Eta, bestetik, udal-txearen pareko berdegunea, eliza, frontoia eta elkarte hartuko dituen oinezko eremua sortzea. Alkateak azaldu duenez, batzarraren "udal-txe eta ostatu pareko espazioari plaza itxura ematea" ere aztertu zuten arbizuarrek. "Zenbait aukera aipatu zituzten. Arkitektoek proposamena batzarraren aurkeztuko dute".

Aberri Egunean elkarrekin kantatzera deitu dute

Euskal Herria Batera herri ekimenak, Aberri Eguna keinu baten bidez elkarrekin ospatzeko deia egin du. www.guaixe.eus-ek eta Belexe Irratiak (FM 107,3) seinalea emitituko dute igandean, 12:30ean, kantatu nahi duten sakandarrendako

SAKANA

Joan den urtean egin bezala, aurten ere Euskal Herria Batera herri ekimenak igandean ospatuko den Aberri Eguna ospatzeko deialdia egin du. Pandemiak ekarritako konfinamenduaren ondorioz 2020an balkoi eta leihoetatik ospatu zen Aberri Eguna, baina aurten plazetan ospatzeko proposamena egin dute Euskal Herria Batera herri ekimenetik. Oihana Maritorea sustatzaileak azaldu duenez, "12:30ean, ikus-entzunezko seinale bat emitituko da irrati bidez, tokiko telebisten bidez eta sarean. Musika izango da seinale horren protagonista, kantuz elkartu gaituzen".

Osasun neurriak kontuan hartuta, herrietako plazetan elkartzeko deia egin du Maritorenak: "herrietako plazetan elkartzeko deia egiten dugu bai seinalea batera entzuteko, edo herriko musikariekin kantaldiak antolatzeko ere. Hiru kantu proposatzen ditugu... baina gehiago ere izan daitezke. Ekimen herritarra da eta beraz herriak nahi duena kantatu dezala". Kanturako proposatutako kantak dira: *Txoriak Txori*, *Ikusi mendizaleak* eta *Gernikako Arbola*. Azken abestiak "batasuna" irudikatuko du. Lehenak "askatasuna", eta bigarren kantuak, aldiz, "maitasuna".



Aberri Eguneko sustatzaileak kantaldietan parte hartzeraz deitzen. UTZITAKOIA

Euskal Herria Baterako ki-deek azaldu dutenez, "ekimena ez dugu plazetara soilik mugatu nahi. Gauden tokian gaude, etxean, mendian zein hondartzan, Euskal Herrian zein kanpoan, seinalearekin bat egin eta kantatzeko deia egiten dugu" erantsi du eta egindakoa sarean bidez kontatzeko deia ere egin du.

Iganderako herrietan deitutako kantaldien bidez, Imanol Esnaolak azaldu duenez, "Euskal Herri burujabea" aldarrikatuko dute. "Erabaki politikoak herri-

tarrengandik ahalik eta gertuen hartzeko, gure bizitzaren eta gure ongizatearen alde egiteko. Komunitate nazional gisa, zainduko gaituen herri bat izan nahi dugulako". Beraien asmoa "bestelako ospakizunen osagarri" izatea dela adierazi du Esnaolak, une batean keinu bat elkarrekin, batera eginez.

Bestetik, Aberri Egunean leiho eta balkoiak ikurrinaz eta nafar ikurrez apaintzeko deia ere egin du Maritorenak. Behar duenak, www.aberrieguna2021.eus webgunean erosteko aukera izanen du.



Presoen herriratzea eskatzeko manifestazioa Etxarri Aranatz. ARTXIBOA

Laugarren preso bat hurbilduko dutela jakinarazi dute

Puerto III kartzelan, 1.020 km-ra dagoen, Unai Parot Navarro Leongo espetxera lekualdatuko dute (370 km)

ETXARRI ARANATZ

Azken aldiko ostiraleroko martxari segituz, Espainiako Espetxe Erakundeetako Idazkaritza Nagusiak euskal presoek lekualdatzea onartu duela jakinarazi du. Oraingoan sei izan dira eta haietako bat Unai Parot Navarro da. Gaur egun Cadizko Puerto III kartzelan preso dago, 1.020 km-ra, eta handik Leongo kartzelara, 370 km-ra, eramanez dute.

Parotek 63 urte ditu. 1990eko apirilaren 2an atxilotu zuten Sevillan, beraz, 31 urte daramatza preso. ETArekin Argala komando ibiltariko kide izateagatik, hainbat atentatutan parte hartzeagatik eta haien ondorioz 39 pertsona hiltzeagatik zigortu zuten. 41 urteko espetxe zigorra du eta haren hiru laurdenak otsailean bete zituen. Euskal presoek espetxeko egonaldia luzatzeko, eta espetxe onuren in-guruko Paroten helegitea atzera

botatzeko, legea bihurritu zuen Espainiako Auzitegi Gorenak 2006an eta hari "Parot doktrina" deitu zioten, Europako Giza Eskubideen Auzitegiak 2013an atzera bota zuena.

Orain arteko espetxealdi guztia lehen graduan bete du Parotek, baina lekualdatzarekin batera bigarren gradura pasa dute. Ondorioz, espetxe onurak eskuratzeko aukera luke. Espetxe erakundeak jakinarazi duenez, presoak "legea onartu du". Gaur egun Leongo Mansilla kartzelan Euskal Preso Politikoen Kolektiboko 6 kide daude. Bestalde, haren etxeratzea eskatzeko dinamika aurkeztu zuten joan den astean Arrasaten eta larunbatean eskaera horrekin manifestazioa egin zuten. Aurretik espetxe erakundeak Sakanako beste hiru presoek lekualdatzea iragarri zuten, baina, momentuz, bakar-ra gauzatu da.

Baldari omenaldia

Fran Balda Araña martxoaren 13an zendu zen. Bera omentzeko ekitaldia antolatu du Arbizuko ezker abertzaleak apirilaren 11n, 12:30ean, Olatzeako zelain. "Omenaldi honen bidez Franek guri ez ezik Arbizuri eta Euskal Herriko askapen prozesuari emandako guztia eskertu nahi diogu. Horregatik, arbizuarrei nahiz sakandarrei dei egiten diegu bertan parte hartzeko".



Josu Zabala Salegirena argitu gabeko kasua da

ETAko kidea hilik agertu zela 24 urte bete ziren ostiralean eta ekitaldia egin zuten

ETXARRI ARANATZ

Ostiralean 24 urte bete ziren Josu Zabala Salegi etxarriarra hil zela. Mendizale batzuek opatu zuten Zabala zenaren gorpu hila Debako Mendata puntan. Bularrean tiro bat zuten eta al-

damenean pistola bat zegoen. Familiak ez du sekula onartu bertsio ofizialak zabalduko suizidioaren tesia. Sortuk "egia argitara" ateratzeko eskatuz ekitaldia antolatu zuten plazan larunbatean.

1997ko martxoaren 23an Bilbok Korrikaren akabera festa hartu zuten. Zabalak Bizkaiko hiriburuan hitzordua zuen eta egun hartan desagertu zen. Autopsiaren arabera hiru egun geroago hil zen, 26an. Zabalaren gorpu, esan bezala, Debako Mendata puntan agertu zen. Gerora ETAK ohar bidez jakinarazi zuen Zabala erakunde kide zela eta bahitu egin zutela. ETAK Zabalaren heriotzaren ardura Espainiako Estatuko Segurtasun Indarrei leporatu zien

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / kultura@guaixe.eus

OSTEGUNA 1

BAKAIKU Lehen borondatezko azulana.
09:30ean, eskolan.

URBASA Aste Santuko Jarduerak: Baso magikoa.
Eduka Natura: 644 555 328.
09:00etatik 14:30era, informazio gunean.

ALTSASU Gazte agenda: Futbolin txapelketa.
18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

OSTIRALA 2

ALTSASU Aste Santuko Jarduerak: Artzainen harana.
Eduka Natura: 644 555 328.
10:00etatik 13:00etara, Dantzalekun.

ALTSASU Gazte agenda: Ze abesti da?
18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ Euskal Presoak Euskal Herrira elkarretaratzea.
20:00etan, plazan.

LARUNBATA 3

ARALAR Aste Santuko Jarduerak: Mitologia tailerra.
Eduka Natura: 644 555 328.
10:00etatik 13:30era, Guardetxen.

ALTSASU Gazte agenda: Epic party games.
18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

IGANDEA 4

URBASA Aste Santuko Jarduerak: Orientazio ikastaroa.
Eduka Natura: 644 555 328.
09:00etatik 14:30era, informazio gunean.

BAKAIKU Aberri eguna 2021: Keinu bat batera.
12:30ean, plazan.

ALTSASU Euskal Presoak Euskal Herrira elkarretaratzea.
20:00etan, plazan.

ASTELEHENA 5

ALTSASU Aste Santuko Jarduerak: Artzainen harana.
Eduka Natura: 644 555 328.
10:00etatik 13:00etara, Dantzalekun.

ETXARRI ARANATZ Pentsio duinen aldeko kontzentrazioa.
11:00etan, plazan.

URDIAIN Paseo osasuntsuak.
11:00etan, plazatik.

ALTSASU Pentsio duinen aldeko kontzentrazioa.
12:00etan, udaletxearen aurrean.

ALTSASU Nazioarteko Gazte Astea: Murala.
18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

ASTEARTEA 6

ALTSASU Aste Santuko Jarduerak: Artzainen harana.
Eduka Natura: 644 555 328.
16:00etatik 17:30era, Dantzalekun.

IRURTZUN Pentsio duinen aldeko kontzentrazioa.
11:00etan, plazan.

BAKAIKU Paseo osasuntsuak.
11:00etan, udaletxetik.

ALTSASU Nazioarteko Gazte Astea: Timelapse Javi Traperorekin.

ZINEMA

ALTSASU

¡ORTIA KULTUR GUNEKO ARETO NAGUSIAN

Dardara gaurkotasunezko film dokumentalaren emanaldia
Osteguna 1: 19:30
Ostirala 2: 19:30
Igandea 3: 19:30

El informe Auschwitz gaurkotasunezko filmaren emanaldia
Osteguna 8: 19:00
Ostirala 9: 19:00
Igandea 11: 19:30

Minari. Historia de mi familia gaurkotasunezko filmaren emanaldia
Osteguna 15: 19:00

¡ORTIA KULTUR GUNEKO ARETO TXIKIAN

Tierras altas zineforum filmaren emanaldia
Osteguna 1: 19:30
Igandea 3: 19:30

Y Iloverán pájaros zineforum filmaren emanaldia
Osteguna 8: 19:00
Igandea 11: 19:30

El agente topo zineforum filmaren emanaldia
Osteguna 15: 19:00

18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

ASTEAZKENA 7

URBASA Aste Santuko Jarduerak: Orientazio ikastaroa.
Eduka Natura: 644 555 328.
09:00etatik 14:30era, informazio gunean.

IRURTZUN, ETXARRI ARANATZ ETA ALTSASU Osasun etxea zaindu! Elkarretaratzea.
11:00etan, osasun etxeetan.

ALTSASU Nazioarteko Gazte Astea: Timelapse Javi Traperorekin.
18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean..

ETXARRI ARANATZ Osasunaren nazioarteko eguna. **Osasun eskubidearen alde, larriki gaixo dauden presoak etxera!** kontzentrazioa.
Sarek antolatuta.
19:30ean, plazan.



ALTSASU Liburu eremua, eremu libre erakusketa.
Apirilaren 23ra arte. Astelehenetik ostiralera 17:00etatik 20:00etara, larunbatetan ikuskizuna aurretik eta igandeetan 18:30etik 19:30era, Iortia kultur gunearen erakusketa aretoan.

OSTEGUNA 8

URBASA Aste Santuko Jarduerak: Baso magikoa.
Eduka Natura: 644 555 328.
09:00etatik 14:30era, informazio gunean.

LAKUNTZA Paseo osasuntsuak.
11:00etan, plazatik.

ETXARRI ARANATZ Paseo osasuntsuak.
16:00etan, osasun etxetik.

ALTSASU Nazioarteko Gazte Astea: Munduko musikak.
18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

ETXARRI ARANATZ Herri txiki, Infernu handi saioaren ekitaldia.
Gonbidapenak agortuta.
20:00etan, frontoian.

OSTIRALA 9

ARALAR Aste Santuko Jarduerak: Arnastu.
Eduka Natura: 644 555 328.
09:00etatik 14:30era, Guardetxen.

ARALAR Aste Santuko

Jarduerak: Mitologia tailerra.
Eduka Natura: 644 555 328.
15:00etatik 18:30era, Guardetxen.

ALTSASU Nazioarteko Gazte Astea: Ipuin Biribilak Sergio de Andresekin.
18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

IHABAR Hitzaldia: **Sakanako ondarea etxeen izenak. Arakil ekialdeko etxeen izenak historian zehar.**
Hizlaria: Jose Luis Erdozia Mauleon.
19:00etan, herriko etxean.

ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ Euskal Presoak Euskal Herrira elkarretaratzea.
20:00etan, plazan.

LARUNBATA 10

URBASA Aste Santuko Jarduerak: Orientazio ikastaroa.
Eduka Natura: 644 555 328.
09:00etatik 14:30era, informazio gunean.

ALTSASU Nazioarteko Gazte Astea: Munduko janariak.
18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

HURRENGO ORRIAN JARRAITZEN DU



- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazen itxitura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovenavarra.com - www.dekovenavarra.com
Ibarrera industrialdea, 9 pabiloia - ALTSASU - Tel./Faxa: 948 468 360 - Telefono mugikarra: 690 641 860



ALTSASU Esti eta Mikel Markezén Azal berritzen diskaren kontzertua.
19:30ean, lortia kultur gunean.

IGANDEA 11

ARALAR Aste Santuko Jarduerak: Arnastu.
Eduka Natura: 644 555 328.
09:00etatik 14:30era, Guardetxen.

ALTSASU. Aste Santuko Jarduerak: Artzainaren harana.
Eduka Natura: 644 555 328.
16:00etatik 17:30era, Dantzalekun.

IRURTZUN Giza eskubideak eszenara: Viejos mundos nuevos antzezlan.
19:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Euskal Presoak Euskal Herrira elkarretaratzea.
20:00etan, plazan.

ASTELEHENA 12

ETXARRI ARANATZ Pentsio duinen aldeko kontzentrazioa.
11:00etan, plazan.

URDIAIN Paseo osasuntsuak.
11:00etan, plazatik.

ALTSASU Pentsio duinen aldeko kontzentrazioa.
12:00etan, udaletxearen aurrean.

ASTEARTEA 13

IRURTZUN, ETXARRI ARANATZ ETA ALTSASU Osasun etxea zaindu! elkarretaratzea.
11:00etan, osasun etxeetan.

BAKAIKU Paseo

osasuntsuak.
11:00etan, udaletxetik.

ALTSASU Familientzako tailerra: Nola kudeatu zure seme-alaben emozioak.

Gizarte zerbitzuak eta Txantxari ludotekak antolatuta. Izena ematea: 948 467 662.
17:00etatik 19:00etara, lortia kultur gunean.

ASTEAZKENA 14

IRURTZUN, ETXARRI ARANATZ ETA ALTSASU Osasun etxea zaindu! elkarretaratzea.
11:00etan, osasun etxeetan.

OSTEGUNA 15

LAKUNTZA Paseo osasuntsuak.
11:00etan, plazatik.

ETXARRI ARANATZ Paseo osasuntsuak.
16:00etan, osasun etxetik.

IRURTZUN Asisko Urmenetaren Sugarren mende liburuaren aurkezpena.
Hitzaldi ilustratua izanen da.
18:00etan, liburutegian.



LAKUNTZA Liburu dasta. Literatur solasaldiak idazleekin: Uxue Alberdi Dendaostekoak liburu.
Sakanako Mankomunitatearen Euskara eta Berdintasun zerbitzuek antolatuta.
18:00etan, Tximonena jatetxean.

IRAGARKI SAILKATUAK

HIGIEZINAK

SALDU
Etxarri Aranatzen, Enfermogurutze dermionan, 8500m²-ko lursaila salgai: guztiz hesituta dago eta 8 metro eta erdiko sakonera duen putzua du. Deitu 669 809 955 tñora.

LANA

LAN POLTSA
Altsasuko Udaleraiko aisialdiko begiraleen lan poltsa osatzeko hautaketa prozesua: Zerrendak bi urteko indarraldia izango du. Izena eman nahi baduzu, apirilaren 6tik apirilaren 23ko 14:00ak arte, udaletxean, posta-zerbitzuaren bidez edo Udalaren Egoitza elektronikokoaren bidez egin dezakezu. Informazio gehiago www.alsasua.net webgunean.

LEHIAKETA

Sakanako Gozamenez film laburren lehiaketa: Hilaren 14ra arte eman daiteke izena: inbostia-punta@altsasu.net edo 608 617 778. Film laburrak apirilaren 28ra arte aurkeztu daitezke. Maiatzaren 5etik 10era gazteen bozketak eginen da, gogoko lana aukeratzeko. Eta sari banaketa maiatzaren 14an izanen da. Informazio gehiago www.altsasu.eus webgunean. Sakanako Gozamenez eta Altsasuko Udala.

Euskal herriko ikastolen komiki lehiaketaren Le-dizioa: Gaia Amaiurko gazteluaren setioa izango da, 14-16 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago, bakarka edo taldekako lanak izan daitezke. PDF formatoan aurkeztu behar dira. Lanak entregatzeko azken data apirilaren 30ean, 12:00etan, izango da. Informazio osagarria: <http://www.nafarroa-oinetz.eus/nafarroa-oinetz.asp?ld=Seccion=8&ldContenido=133> estekan edo ehi-komikilehiaketa@kastola.eus helbidera idatzi.

"Erdialde" euskarazko idazlan laburren 14. lehiaketa: 6 urteko gora-koei zuzendua, maila ezberdinetan banatuta egongo direlarik, maila bakoitzeko 3 sari. Lanak aurkezteko epea 2021ko apirilaren 28an amaitzen da Miranda de Argako Tude-lana kaleko 3.zbkiko egoitzan edo erdialde.euskararenlagunak@gmail.com helbidean. Oinarriak <http://euskararenlagunak.wordpress.com> antolatzaileen helbidean. Sariak 2021eko maiatzaren 29an banatuko dira, Miranda de Argan izanen den "Euskararen eguna" ospakizunean. Irabazleei alde aurretik abisatuko zaie.

XII. Gaztezulo Bideo Lehiaketa martxan: www.gaztezulo.eus helbidean sartu, formularioa bete, bideoa grabatu (ezinbestean Gaztezulo pape-rezko aldiakaria, aldiakari digitala edota gaztezulo.eus webgunea azaldu behar dira) eta bidali web@gaztezulo.eus helbidera maiatzaren 21a baino lehen. Irabazleek 1200 euroko saria jasoko dute! Informazio gehiago <https://www.gaztezulo.eus/albisteak/hermen-da-xii-gaztezulo-bideo-lehiaketa/> estekan.

ZOKKETA

Elkartasun zokketa: Ziordia running taldeak Rett sindromea, gaixotasun arraroa, duen San Adriango 6 urteko neska baten aldeko elkartasun zokketa antolatu du. Txatelen salmentarekin haren etxeko komunean aldagailua jarri nahi dute, baita Bearendako propio egokitutako moldea duen aukia erosi nahi dute udarako. 75 sari zozketatuko dira. Txartelak euro batean eros daitezke taldeare sare soziale-tako profilen bidez, 620 064 534 telefonoaren bidez (Jose Ramon), Altsasuko JJ tabernan eta Ziordiko Kixkur ile-apaindegian (apirillean).

OHARRA

Odol-emateak Etxarri Aranatzen: apirilaren 7an eta 14an, 17:00etatik 20:30ra, www.adona.es/ eu webgunean informazio gehiago.

Altsasuko egur loteak eskatzeko jarraibideak: Familia unitate bakoitzak eskabidea aurkeztu dezake apirilaren 16a arte. Infolocal-era deituz (948 012 012) izen-abizenak, NAN zbkia, tño zbkia eta helbide elektronikoa eman behar da. Bete behar diren baldintzak www.alsasua.net webgunean irakurri daitezke edota udaletxean galdetu.


Uhartu Arakilo 2021eko egur epaiak: Interesa dutenek martxoaren 15etik apirilaren 15a bitarte, 35 euro ordaindu beharko dituzte udaletxean, izena ematerakoan eta Udalaren zerga betebeharrak egunean izan beharko dituzte. Loteen esleipena ekainean izanen da.

1978ko sanferminak: Sanfermin es 78 Gogoan! elkarrekin eta Iruñeko Peñen Federazioak elkarlanean gertaera haiei eta, batez ere, Peñen Ikerketa Batzordeari loturiko dokumentazioa eta informazioa berrikusteko proiektua martxan jarri dute. Gertaerakin loturiko informazioa eta, bereziki, Ikerketa Batzorde hark egindako lanarekin loturikoa bildu eta digitalizatzeko da helburua. Ikerketa Batzorde harekin eta egun haietako gertaerakin loturiko informazioa eta/edo dokumentazioa duen pertsona guztiei haiekin harremanetan jar daitezten eskatu dute. E-postak: federacionip@hotmail.com edo info@sanfermines78gogoan.org


iragarki@guaixe.eus
www.iragarkilaburra.eus

EGURALDIA ASTEBURUAN


Osteguna, 1




Ostirala, 2



Larunbata, 3



Igandea, 4



HERIOTZAK

- Virginia Oraa Otegi, martxoaren 27an Olaztin
- Marili San Roman Goikoetxea, martxoaren 27an Urdiainen

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.



IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUI, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU Santa Cruz, 6
ETXARRI ARANATZ Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70

🐦 @Grupolrache

📘 Grupolrache

🌐 www.tanatoriosirache.es



Martxoaren 15ean Valentzian jokaturako Espainiako Txapelketan lehiatu zen Iskiza Sakana taldea. ISKIZA SAKANA

Maidar Betelu Ganboa SAKANA

Iskiza Sakana Gimnasia Erritmikoko taldeak berriki hasi dira txapelketetan parte hartzen. Urte zaila izan da aurtengoa, baina buelta eman diote. "Aurreko udan Espainiako Txapelketetan parte hartu behar zuten gimnastekin lanean hasi ginen. Gainontzekoak urrian hasi ziren, ikasturte hasieran" azaldu digu Iskiza Sakana taldeko Olaia Agirre Rodriguez entrenatzaileak. Agirrekin batera Olaia Granizo, Maria Remolina eta Ainhoa Imaz dira Iskiza Sakanako entrenatzaileak.

Aurten 24 gaztetxo trebatzen ari dira Iskiza Sakana gimnasia erritmikoko eskolan. Pandemia dela eta, lau taldetan banatu dituzte, gehienez talde bakoitzean 6 aritu ahal direlako. "Ikasle gutxiago daude aurten, aforo mugengatik; jendea kanpoan geratu behar izan da, pena handiz. Ordugegiak ere asko murriztu behar izan ditugu, ikasle gehiago sartu ahal izateko. Denboraldi hasiera ez da batere erraza izan, batez ere beraiendako" dio Olaia Agirrek.

Gimnasia erritmikoko eskolaz gain, Iskizako txapelketa taldeak daude. Espainiako Txapelketetara aurkezten den taldean 6 gimnasta daude, eta kadete mailako taldea da. Hauek dira taldeko entrenatu ahal duten bakarrak. Bestalde, Nafarroako Kirol Jolasetako taldean 15 gimnasta trebatzen dira, aurre benjamin mailatik hasi eta junior mailaraino; hau da, 8 urtetatik 16 ur-

Iskiza Sakanako kimu berriak

GIMNASIA ERRITMIKOA Talde sakandarra ongi aritu da Espainiako Gimnasia Erritmikoko Txapelketan eta Nafarroako Kirol Jolasetako 1. jardunaldian. Gimnasta gehienak txapelketetan mustu dira, eta dakitena ongi erakutsi dutela diote entrenatzaileek

teraino. Kasu honetan, banakako koreografiak landu dituzte, ezin izan dute taldeka lan egin. Eskola eta lehiaketa taldeak kontuan hartuta, guztira 45 gaztetxo trebatzen dira Iskizan.

Martxan daude, eta hori da garrantzitsua. "Udan zalantzak nituen, hasiko ote ginen. Hemen egotea eta txapelketetan hasi izanagatik pozik gaude" dio Olaia Agirrek.

Kadeteak ongi Espainiakoan Martxoaren 15ean Espainiako Txapelketa jokatu zen Valentzian, eta bertan Iskiza Sakanako mai-

"ISKIZAK LANDUTAKO OSO ONGI DEFENDATU ZUEN ESPAINIAKO TXAPELKETAN" OLAIA AGIRRE

la nazionaleko taldea aritu zen. "Beraiendako Espainiako Txapelketako lehendabiziko txapelketa zen, eta helburua ez zen emaitzak lortzea, esperientzia hartzea baizik. Udatik martxora bitartean egindako lana erakustea lortu zuten; ardura handia zen euredako, eta lortu zuten. Oso pozik gaude eta daude egin zuten lanarekin" nabarmendu du Agirrek. Pilotarekin eta mazekin aritzea egokitu zitzaion, eta koreografia polita eta animatua aurkeztu zuten.

Espainiako Txapelketan denetarik maila dagoela azaldu du Agirrek. "Asko nabarmentzen diren taldeak daude, izena ere badutenak. Esaterako Madrilen sekulako maila dago, eta Valentziak, Kataluniak eta Kanariar Irlek ere maila handia dute. Iskiza Sakana erdialdean dago, gorantz. Esan beharra dago lan

duina egin genuela. Eta ez zen batere erraza izan, egoeragatik. Hasiara batean txapelketa ilbeltzean zen jokatzekoa, eta hara abiatu baino hiru egun lehenago esan ziguten txapelketa atzeratu behar zela. Ez genekien noiz izanen zen, eta datarik gabe lan egitea ez zen erraza izan, baina gimnastek egoera nahiko ongi eraman zuten" dio Agirrek.

Hurrengo erronka, ekainaren lehenengo astean jokatu den Espainiako Kopa da. Espainiako Txapelketa horrenbeste atzeratu zenez, denbora gutxi dute prestatzeko, baina lana ahalik eta

"NAFARROAKO TXAPELKETAN ONGI ARITU ZIREN ISKIZAKO 15 GIMNASTAK" OLAIA AGIRRE

hobekien prestatzen saiatuko dira Iskiza Sakanakoak. Uztaiekin aritzea egokitu zaie, eta bost uztaiekin landu behar dute euren koreografia. Kopa pasata, abendura arte ez dago Espainiako beste txapelketarik.

Aparatu zailenak zein diren galdetuta, akaso zintak eta mazak zailenak direla aitortzen du Agirrek. "Gero bakoitzaren trebetasunaren eta gustuen arabera alda daiteke, baina mazak bi dira, bi eskuak erabili behar dira, ezkerreko eskua sartzen da jokoan, normalean aparatu bakarrarekin aritzerakoan gehiegi erabiltzen ez dena, eta zaila izaten da. Baita zinta ere. Zintak 6 metro ditu eta puntak ezin du lurra ukitu. Beraz, uneoro mugimenduan izan behar da, nekatzen du eta horrek ere bere zailtasuna du" azaldu du Agirrek.

Nafarroakoan bi podium

Asteburuan Nafarroako Kirol Jolasen Gimnasia Erritmikoko Banakako Txapelketa jokatu zen Mendillorin. Bertan Iskiza Sakana taldeko 15 partaideak aritu ziren. "Nafar Kirol Jolasetako taldeko 15 kideetatik 11rendako, lehendabiziko txapelketa zen. Urduritasuna eta gogoia, guztia batera sentitzen zuten, eta esan beharra dago guztiek egindako lanarekin oso pozik gaudela" nabarmendu du Olaia Agirrek.

Iskiza Sakanak bi podium lortu zituen. Kimuen mailan, Enara Perez olaztiarra 3. geratu zen eta aurre benjamin mailan Sofia de Sousa urdiaindarra bigarrena. Enara pilotarekin aritu zen, eta Sofia esku libreekin, aparatutik gabe, txikienak aparatutik gabe aritzen baitira. "Enara eta Sofia podiumera igo ziren baina guztien lana nabarmendu nahiko genuke; hilabete hauetan landutakoa erakutsi zuten, eta tapizean disfrutatu zuten. Hori zen helburua" berretsi du entrenatzaileak.

Hurrengo erronka apirilaren 17an Errioxako talde batek antolatutako duen gimnasia erritmikoko online txapelketan aritzea izango da. "Zelandin grabatuko dugu. Oso berezia izango da. Epailak pantailatik segiko dute txapelketa. Badakigu ez dela berdina eta euredako ere baloratzea askoz ere zailagoa izango dela, baina gutxienez zerbait bada" dio Agirrek. Bestalde, apirilaren 24an Nafarroako Banakako Txapelketaren 2. fasea jokatu da, Mendillorin.



Udaberriko giroarekin jokatu zen Arbizuko Duatloia. Erdian, Hegoi Lakuntza altsasuarra, junior mailan 5. sailkatu zena.

Astiz eta Moreno txapeldunordeak

DUATLOIA Udaberriko eguraldi bikaina lagun, 91 duatleta lehiatu ziren Arbizuko Duatloian, eta Mikel Astiz eta Ines Moreno sakandarrak Ander Noainen eta Inma Pereiroren atzetik sailkatu ziren. Hegoi Lakuntza juniorren 5. postuan sailkatu zen

Maidar Betelu Ganboa ARBIZU Udaberriko giro eguzkitsuarekin jokatu zen, larunbatean, 23. Arbizuko Duatloia, aldi berean Nafarroako Distantzia Motzeko Duatloi Txapelketa izan zena. Pandemia dela eta, Arbizuko Udalak 120 partaideren muga ezarri zuen eta azkenean 91 izan ziren aritu zirenak. Horietatik 13k ezin izan zuten proba bukatu. Osasun neurriak betetzeko, Olatzea Hotelaren pareko eremu guztia itxi egin zen eta duatleten irteera eta helmuga eta trantsizio guneak edo boxak bertan izan ziren, publikorik gabe. Eta, jakina, kronometratutako irteera izan zen; duatletak 10 segundoro hiruunaka atera ziren.

Bi proba jokatu ziren. Batetik ohiko proba, Arbizuko Duatloia (8 km korrika -32 km bizikletan-4 km korrika), Nafarroako Distantzia Motzeko Duatloi Txapelketa

izan zena, eta bestetik Arbizuko Ibilbide Herrikoa (4 km-16 km-2 km), nagusiaren distantzia erdia zuena. Junior mailakoak bertan aritu ziren. Ibilbidea aurreko urteetako antzekoa izan zen, herriaren prestatutako zirkuitua, eta bizikleta segmentuan 32 kilometroko tartea, tartean Lizarragako portua (750 m) gainditu, eta Etxarritik jaitsita Arbizura heldu behar izan zuten partaideek. Ez zebilen haize askorik, duatletak biziki eskertu zutena.

Proba nagusian Ander Noain (Saltoki) eta Inma Pereiro (Saltoki) gailendu ziren nagusitasun

**ARBIZUN DUATLETEI
BIZIKLETA ONDOKO
KORRIKAKO AZKEN
SEGMENTUA EGIN
ZITZAIEN GOGORRENA**

osoz. Madrilgo errendimendu altuko gunean trebatzen den Ander Noain gazteak (1:34:20) hegan egin zuen, segmentu guztietan aurrean izan zen eta 4 minutuko tartea atera zion baita ere proba oso ona egin zuen eta bigarren sailkatu zen Ihabarko Mikel Astizi (Donibane, 1:38:29). Joseba del Barrio (Tri-Ur Gazia) izan zen hirugarrena (1:38:55). Sakana Triatloi Taldeko Sergio Garcia de Eulate altsasuarra Top-Tenean sailkatu zen, 6. postuan sartu baitzen, proba ona egin eta gero (1:40:46).

Partaide gehienek aitortu zuten bizikleta ondoko korrikako azken segmentua egin zitzaie la gogorrena, baita Ander Noain txapeldunak ere. Noainek aitortu zuen lasterketa "oso polita eta oso gogorra" zela, azken segmentua bereziki. Madrilgo errendimendu altuko gunean aritzen den 22

urteko triatletak Aste Santuko buelta probestu zuen Arbizuko proban aritzeko eta apirilaren 18an Melillan jokatu den Europako Kopa prestatzeko. Azpimarratu zuenez, bere entrenatzaileak zehaztutako denborak bete zituen, eta trantsizio guztietan aurrean izan zen. Oso pozik zegoen garaipenarekin.

Emakumezkoetan, aurreko astean Altsasuko Duatloia irabaztetik zetorren Inma Pereiro 48 urteko beteranora lehenengoz aritu zen Arbizun, eta "lasterketa ederra" iruditzi zitzaion. Pereirok bi minutuko aldea atera zion Ines Moreno altsasuarrari (Lea, 1:59:30), eta Maialen Elia izan zen hirugarrena (2:01:39).

Sakandarrak podiumean

Nafarroako Distantzia Motzeko Duatloi Txapelketako txapelduna Ander Noain izan zen eta Mikel Astiz txapeldunordea. Bestalde, Sergio Garcia de Eulate beteranoren 1. mailako txapelduna izan zen. Emakumezkoetan Inma Pereiro izan zen txapelduna, Ines Moreno txapeldunordea eta Silvia Perez beteranoren 2. mailako txapelduna. Beraz, sakandarren dantza izan zen Arbizuko podiumean.

Arbizuko Ibilbide Herrikoa

Arbizuko Herri Lasterketari dagokionez, Saltokiko Julen Andueza (49:27) eta bere taldekide Claudia Martinez (1:00:52) izan ziren garaileak. Saltoki taldea, beraz, Arbizuko protagonista izan zen. Sakandarrei dagokionez, Sakana Triatloi Taldeko Iñaki Alvaro 5. postuan sailkatu zen (54:38) eta Hegoi Lakuntza altsasuarra 11. postuan sartu zen, juniorren mailan 5.a (58:54).

Sakandarrak

Arbizuko Duatloia (8 km-32 km-4 km)

• Gizonak

1. Ander Noain	1:34:20
2. Mikel Astiz	1:38:29
6. Sergio Garcia	1:40:46
29. Ivan Sobredo	1:54:15
31. Jose Ignacio Mikeo	1:55:27
34. Juan Carlos Gomez	1:56:09
40. Mikel Lakuntza	1:57:56
41. Juan Luis Maiza	1:58:01
67. Luis Flores	2:20:53

• Emakumeak

1. Inmaculada Pereiro	1:57:25
2. Ines Moreno	1:59:30
11. Silvia Perez	2:21:46

Arbizuko Ibilbide Herrikoa

(4 km-16 km-2 km)

• Gizonak

1. Julen Andueza	49:27
5. Iñaki Alvaro	54:38
11. Hegoi Lakuntza	58:54
15. Luismi Chaves	1:03:13
18. Jon Lapuente	1:04:47

• Emakumeak

1. Claudia Martinez	1:00:52
---------------------	---------

*Oharra: Sailkapenean ez da duatleten jaioterria jasotzen.



Mikel Astiz, indar betean. NEREA MAZKIARAN



Ines Moreno, bizikleta segmentua bukatzen.



Naturaritzean gozatzen ekimena. MANK

Jarduera fisikorako orientatzailea behar da

LANPOSTUA Apirilaren 12a baino lehen aurkeztu behar dira eskaerak Mank-en edo Enplegu Bulegoan

Sakanako Mankomunitateak Sakana Eskualde Aktiboa zerbitzurako jarduera fisikorako orientatzailea kontratatu nahi du. Lanaldia astean 18 ordukoa izanen da, irailtik uztaiera, zerbitzuaren beharren arabera moldatu daitekeena. Kontratua aldi baterako lanaldi partzialeko obra edo zerbitzu jakinekora izanen da, eta kontratuaren iraupena betetzen den zerbitzuaren arabera izango da. Lanpostuaren oinarriak Sakanako Mankomunitatean daude (www.sakana-mank.eus).

Epea eta hautaketa probak

Interesatuak apirilaren 12ko 14:00ak arte aurkeztu ditzakete euren eskaera, Enplegu Bulegoan edo Sakanako Mankomunitateko Erregistroan. Eskaerarekin batera curriculuma -bertan agertzen diren meritu guztiak egiaztatzen dituzten dokumentuekin batera-, eta memoria aurkeztu beharko dute.

Bi egun barru hautaketa probak hasiko dira, Mankomunitatean, Lakuntzan. Euskara proba apirilaren 14an izanen da, 10:30etan. Hautagaiek memoriaren defentsa apirilaren 16an egiten dute, goizeko 9:00etatik aurrera. Prozesuan sortzen den lan poltsa hiru urterako izango da.

Dani Saldise Kopa lortu izanaz "oso harro" dago

ARETO FUTBOLA Dani Saldiseren Inter Movistar taldeak Espainiako Kopa lortu zuen Barçari 6 eta 1 irabazi eta gero. Saldisek Interren seigarren gola sartu zuen eta 25 urteko irurtzundarra titulu ofizial bat lortu duen lehen areto futbolari nafarra da

Inter Movistarrak eta Barçak Espainiako Kopako final handia jokatu zuten igandean Madrilgo Wizink Centerren, 1.500 ikusleren aurrean. Dani Saldise irurtzundarrak Inter Movistarrekin jokatu zuen, eta lehia zirrarragarran, Inter Movistar 6 eta 1 gailendu zen. 25 urteko pibot irurtzundarrak lehen urtea du Interren, Xota utzi eta gero. Ikusgarri aritu zen, eta partidaren erabakigarria izateaz gain, Inter Movistarren azken gola sartu zuen, seigarrena. Dani Saldise areto futboleko titulu ofizial bat irabazi duen lehen jokalaria nafarra da.

Irurtzundarra oso pozik dago. Esker oneko hitzak izan zituen finala bukatu eta berehala. "Eskerrik asko urte hauetan guztietan bidelagun izan ditudanei. Hau hasi besterik ez da egin" azaldu zuen sare sozialetan. "Azaldu ezinezko sentazioa da, sekulako harrotasuna. Espero dut hau beste titulu askoren lehengo izatea" gaineratu zuen.

Egunak pasata, hotzean, Dani Saldisek balore gehiago ematen dio lorpenari. "Espainiako Kopa bat lortzea ez baita batere erraza" azaldu du. Kopa lortu izanagatik "harro" sentitzen dela gaineratu du, eta Nafarroatik ere oso babestuta sentitu dela. "Ese-



Dani Saldise Espainiako Koparekin. INTER MOVISTAR

verri, Gascón, Roberto Martil edo Asier bezalako jokalariek ez dute Kopa bat altxatzea lortu, eta Irurtzungo mutiko batek Interren dabilen lehen denboraldian Kopa jasotzea sekulako gozamea da. Nafarregatik ere oso babestuta sentitu naiz, eta Xotak ni zoriondu izanak izugarri pozutu nau" azaldu du Dani Saldisek, Tatonoren eta Imanolek mezua jaso zuela azaldu eta gero.

Izan ere, Osasuna Magna Xotak jokalaria irurtzundarra zoriondu zuen finala bukatu bezain pronto. "Dani Saldise titulu ofizial

bat lortu duen lehen jokalaria nafarra da. Harro gure klubean trebatu izanagatik eta irurtzundarra delako, gure sehaska. Zorionak!" azaldu zuen sare sozialetan talde irurtzundarrak, Dani Saldise Xotako harrobian txikia zeneko argazki batekin.

Pitxitxia

Lehen mailako Areto Futboleko Ligako pitxitxia da Dani Saldise, eta denboraldi ona ari da egiten. Sasoi onean dago, eta titulu gehiago etortzea nahiko lukeela aitortu du.

CBASK, lider berria

SASKIBALOA CBASK-Jatorman da Autonomia Arteko 2. Mailako lider berria, talde altsasuarrak larunbatean, Zelandin Valle de Egüesi 61 eta 49 irabazi eta gero. Apirilaren 10ean atzera ere elkarren kontra ariko dira bi taldeak, 18:00etan, Arangurenen. Nafarroako 2. maila autonomikoan CBASK-Ifuelek 49 eta 56 irabazi zion Gazte Berriak liderrari.



1. MAILA AUTONOMIKOA

7. JARDUNALDIKO EMAITZAK
Zirauki- Lagun Artea 1-1

SAILKAPENA

1. MAILA AUTONOMIKOKO 1. MULTZOA

1 Erriberri 17

8 Lagun Artea 5

HURRENGO JARDUNALDIA

GAUR, OSTEGUNA

16:30 Lagun Artea - Avance Ezkabarte (Zelai Berr)

Lakuntzarrek itxura hobea

Zirauki dominatu zuen, baina Lagun Arteko Kepak lortu zuen Zirauki atea zulatzea, 10. minutuan. Bigarren zatian berdintzea lortu zuen Zirauki eta puntu banaketarekin bukatu zen partida. Badirudi Lagun Arteak, gutxika, tamaina hartzen ari diola kategoria berriari. Gaur, Ostegun Santua, sailkapenean bigarren postuan dagoen Avance Ezkabarte taldea hartuko dute lakuntzarrek.

ERREGIONALA GIZONAK

7. JARDUNALDIKO EMAITZAK
Altsasu - Doneztebe (Atzeratuta)

SAILKAPENA

ERREGIONAL MAILAKO 5. MULTZOA

1 Gazte Berriak 18

4 Altsasu 4

HURRENGO JARDUNALDIAK

GAUR, OSTEGUNA

18:30 Asdefor - Altsasu (Amigó)

Altsasuk gaur Asdefor aurkari

Asteburuan Altsasu Donezteberen kontra aritzeko zen, baina partida atzeratu egin behar izan zen, COVID-19 kasuak direla medio. Oraindik ez dakite atzeratutako partida hori noiz jokatu den. Bitartean, gaur, Ostegun Santua, Altsasuk Asdefor taldea izango du aurkari Amigó ikastetxean jokatu den partidaren. Asdefor taldea azkena da sailkapenean, oraindik ez du partidarik irabazi, eta printzipioz partida irabazteko faboritua talde altsasuarra da.

ARETO FUTBOLA Osasuna Magnak lehen mailari eustea dago jokoan

Areto Futboleko 1. mailan 26. jardunaldia dago jokoan eta Osasuna Magnak Globeenergy Peñíscola taldea hartuko du ostiralean, 20:00etan, Anaitasuna pabilioian. Partida garrantzitsua da, garai-pena lortuz gero lehen mailako kategoriari eustea lor baitezake Imanol Arregiren taldeak. Nafarra Television eta LaligaSports TV kateetan ikus daiteke.

Kalkulagailuak martxan jartzeko unea iritsi da

PILOTA Binakako ligaxkako azken jardunaldiko lau partidetan dago zerbait jokoan: Elezkanorekin eta Zabaletarekin zuzenean finalerdietarako sailkatzea, edo finalerdietako play-offetarako sailkatzea. Ezkurdia eta Martija azken borrokan daude

Nahita prestatuta ere ez litzateke horren ongi aterako. Asteburuan Binakako ligaxkako azken jardunaldia jokatuko da eta lau partidetan egongo da zerbait jokoan. Sailkapenari begiratuta, Elezkan II.a eta Zabaleta dira lehenak (10 puntu) eta zuzenean finalerdietarako sailkatu den bikote bakarra. Peña II.a eta Albisu dira bigarrenak (9 puntu), Altuna III.a eta Mariezkurrena hirugarrenak (8 puntu), Olaizola II.a-Rezusta eta Ezkurdia-Ladis Galarza laugarrenak eta bosgarrenak, seina punturekin, Jaka-Martija eta Urrutikoetxea-Imaz seigarrenak eta zazpigarrenak, bosna punturekin, eta Artola-Aranguren zortzigarrenak, 3 punturekin. Peña-Albisu eta Altuna-Mariezkurrena 2. sailkatu eta zuzenean finalerdietara sailkatzeko borrokan daude, eta beste borroka handia finalerdietako play-offetan sailkatzeko da, hau da, sailkapeneko 3. eta 6. postuen artean egotea. Artola eta Aranguren izan ezik, gainontzekoek dute aukera. Beraz, emozioak azken arte iraunen du.

Labritekoa, erabakigarriena

"Borroka betean gaude eta pilota zaleendako txapelketa bukaera ederra ari da izaten, emozio handikoa" adierazi zuen Ezkurdiak astelehenean ikusgarri aritu eta garaipen garrantzitsua lortu eta gero. Eta aurrelari arbizuarrak arrazoi osoa du.

Ostiralean Elezkan II.ak eta Zabaletak Olaizola II.a eta Rezusta izango dituzte aurkari Bilbon (17:00etan, ETB1). Aspekoak finalerdietan daude, baina irabaziz gero, mesede ederra egingen liekete Ezkurdia-Galarzari eta Jaka-Martijari, play-offetako borroka horretan.

Partida erabakigarrietakoa larunbatekoa izango da. Jakak eta Martijak Peña II.aren eta Albisuren kontra jokatuko dute Labriten (17:15ean, ETB1). Bi



Albisu-Peña II.aren eta Jaka-Martijaren arteko lehia erabakigarrietakoa izanen da.

"BORROKA BETEAN GAUDE; TXAPELKETA BUKAERA EDERRA ARI DA IZATEN" JOSEBA EZKURDIA

txartel daude jokoan. Bata, zuzenean finalerdietan sartzekoa, Peña II.ak eta Albisuk jokoan dutena. Eurek irabazten badute zuzenean sailkatzeko aukera handia lukete, beti ere Altuna-Mariezkurrenaren emaitzaren eta partidetako tanteoaren arabera. Bestela, play-offetarako sailkatuko lirateke. Aldiz, Jaka eta Martija irabazi beharrean daude play-offetarako sailkatzeko. "Txapelketa polita ari da izaten. Tentsiorako unek dira, denok bizi nahi ditugunak" azaldu zuen Jakak, eta presioa Peña II.aren eta Albisuren gainean jarri zuen. "Galduz gero, play-offak dituzte, baina hor gehiago dute galtzeko irabazteko baino" nabarmendu zuen Lizartzakoak.

Larunbatekoak eragina izango du ondoren jokatuko diren beste bi partidetan. Igandean Ezkurdiak eta Ladis Galarzak Urrutikoetxea

eta Imaz ordezkatzeko duen Aretxabaleta izanen dituzte arerio Zarautzen (17:00etan, ETB1). Ezkurdiak eta Ladisek irabazten badute, play-offean izango dira. Galtzen badute, play-offetan sailkatu ahal izateko bezperan Jakak eta Martijak galtzea beharko lukete. "6 punturekin sailkapenean laugarrenak gara baina zazpigarren sailkatzeko arriskua dugu azken jardunaldian. Play-offetako formatu honekin txapelketa bukaeraino irekia dago eta pilotariak ere beste tentsio gogo eta intentsitate gehiagorekin entrenatzen dugu. Ea sentsazio onekin jarraitzen dugun eta partida irabazterik dugun" adierazi du aurrelari arbizuarrak.

Bukatzeko, astelehenean, Amezketan, zuzenean finalerdietara sailkatzea jokoan duten Altuna III.a-Mariezkurrena II.aren eta txapelketan aukerarik gabe dauden Artola-Aranguren arteko partida jokatuko da (22:30ean, ETB1).

Beraz, azken arte atsedetik ez. Sailkapenean seina punturekin berdinduta lau bikote geldituko balira, tanto averageak erabakiko luke. Kalkulagailuak prest daude.



2020 urteko Irurtzun Pilota Txapelketako finalistak. IRURTZUN

Apirilaren 5ean hasiko da 39. Irurtzun Pilota Txapelketa

PILOTA Gizonezkoen Txapelketa, emakumezkoena eta binakako torneoan afizionatu nafar onenak lehiatuko dira

Kantuak dioenez ez dira betiko garai onenak, baina Irurtzun Pilota Klubak ez du etsi eta Irurtzun Pilota Txapelketa antolatzeko ahalegin aparta egin du Miguel Berazak zuzentzen duen klubak. Horrela, apirilaren 5ean hasiko da 39. Irurtzuno Pilota Txapelketa, eta bertan Nafarroako pilotari amateur onenak ariko dira.

Irurtzun Pilota Klubak txapelketa antolatzeko babesleen laguntza ezinbestekoa izan dela nabarmendu du, eta Laturaleren, Lakitaren, Neumáticos Iruñaren, Manfisaren, Irurtzuno Udalarren eta Nafarroako Pilota Federazioaren babesa eskertu du.

Gizonezkoen txapelketan 12 bikotek hartuko dute parte, 4 multzotan banatuta. A multzoan ondoko bikoak ariko dira: Espinal-Arbizu, Antso-Beroiz eta Canabal-Azanza eta Lansalot-Gurreak jokatuko duten atariko irabazleak; B multzoan Elizalde-Bergera, Nazabal-Gaskue eta Iriarte-Alduntzin eta Murgiondo-Telletxeak jokatuko duten atariko irabazleak; C multzoan Olaetxea-Aldabe, Ongai-Apezetxea eta Arribillaga-Iturriaga; eta D multzoan Retegi Bi-Lazkoz, Armendariz-Irurita eta Laso-Minak eta Goñi Peñasek jokatuko duten atariko irabazleak.

Emakumezkoen torneoan 4 bikotek hartuko dute parte: Iera Agirre-Narrea Elizalde, Andrea Aldaregia-Olatz Ruiz de Larramendi, Irantzu Etxebeste-Maite Ruiz de Larramendi eta Laia Salsamendi-Ane Mendiburu.

Irurtzunen eta Labriten

Hain zuzen ere apirilaren 5ean, astelehenearekin, jokatuko dira atariko hiru partidak Irurtzuno Biaizpe pilotalekuan, 16:30ean: Canabal-Azanza vs Lansalot-Gurrea, Iriarte-Alduntzin vs Murgiondo-Telletxea eta Laso-Mina vs Goñi Peñas. Irabazleak txapelketarako sailkatuko dira. Txapelketa ligaxkan jokatuko da, eta multzo bakoitzeko bi bikote onenek final laurdenetarako txartela lortuko dute. Txapelketako partida gehienak Irurtzuno Biaizpe pilotalekuan jokatuko dira, apirilaren 16an, 23an, 30ean eta maiatzaren 7an, 14an eta 21ean Iruñeko Labriten jokatuko direnak izan ezik. Final handiak maiatzaren 29an jokatuko dira, Irurtzunen. Pandemia dela eta, ikusleen tokia %30ekoa izanen da.

Binakako Torneoa

Irurtzun Pilota Txapelketarekin batera, Binakako Torneoa jokatuko da. Ondoko bikoteek hartuko dute parte: Oskoz-Cordon, Aristegi-Ballarena, De la Fuente-Azpiroz, Igoa-Santamaria, De la Torre-Garces, Loiarde-Oskoz eta Irurtzun Pilota Txapelketako atariko irabazleak.

Espainiako Kluben Artekoa

Espainiako Kluben Arteko Buruz Buruko Txapelketako azken faseko sailkatu da Irurtzun klubak. Urtzi Nazabal eta Retegi Bi izan dira Irurtzuno ordezkariak, eta martxoaren 9etik 11ra jokatuko dute azken fasea.



Uxue Alberdik 'Dendaostekoak' liburuaren idazlea. UTZITAKOIA

"Ohartu naiz brodatzeak eta idazteak zerikusia dutela"

UXUE ALBERDI ESTIBARITZ IDAZLEA ETA BERTSOLARIA

'Dendaostekoak' ez da "ohiko nobela bat, ez da ohiko kronika bat ezta fikziozko liburu bat ere". Baina liburu literarioa da

Eneida Carreño Mundiñano eta Erkuden Ruiz Barroso LAKUNTZA

Sakanako Mankomunitateko Berdintasun eta Euskara Zebitzuek antolatutako Liburu dasta ekimenaren bigarren gonbidatua Uxue Alberdi idazlea izanen da. *Dendaostekoak* liburuari buruz hitz egingen du. Liburuan dendaoste batean kontatutako istorioak biltzen ditu Alberdik. Lau hamarkadetan jostungile denda baten barruan eta kanpoan gertatutakoak kontatzen ditu. Personaia errealitateatik abiatu da

testua josteko. Apirilaren 15ean, 18:00etan, Tximonena jatetxean izanen da Alberdi.

Nola bururatu zitzaizun?

Liburu hau idazterakoan ohartu naiz brodatzeak eta idazteak badaukatela zerikusiren bat. Liburuan aipatzen da brodatzeko makinak bi hari erabiltzen dituela: beheko ardatzetik datorrena hari gida da, txuria, ikusten ez dena. Goiko ardatzetik datorrena koloretakoa da, ikusiko dena, marrazkia osatzen duena. Idazteko prozesuan horrelako

zerbait gertatzen da. Idazleak hari txuri bat dauka beheko ardatzetik datorrena irakurleak zertan asmatu eta zerta ezagutu ez duena. Eta gero dago emaitza. Kasu honetan hari txuri hori oso intimoa da. Denda bateko alaba naiz eta liburuko narratzaileak, Izaskun eta Marijo, nire ama eta izeba dira. Dendak 40 urte egin zituenean festatxo bat egin zen eta konturatu nintzen nire haurtzaroko paisaiarik inportanteenetarikoak izan zen denda hori desagertuko zela. Lehenengo

mugarria izan zen. Gero *Maitasuna politikoa da* izeneko ikas-taro batean Jone Arrazolak *Abitatzen ditugun eta abitatzen gaituzten kaleen izenak* hitzaldian egon nintzen eta bertan hitz egingen zen denda txikiek emakumeen ahalduntzean eta beraien arteko harremanean izan zuten garrantziaz. Dendarekin zerbait egin behar nuela erabaki nuen. **Nola izan da prozesua?**

Handik hilabete batzuetara amari eta izebari dendaren istorioak biltzea proposatu nien. Oraindik jakin gabe harekin seguru zer egin behar nuen. Asteazkenetan dendaostean gelditzea erabaki genuen. Hogei asteazkenetan 50 ordu baino gheiago grabatu genituen. Astero lantzen nituen esandakoak. Horren emaitza modura sortu zen *Dendaostekoak*. Ez da ohiko nobela bat, ez da ohiko kronika bat, ez da fikziozko liburu bat, baina liburu literario bat da. Ez dut kazetaritza trajearekin lan egin. Idazlearekin egin dut, baina saiatu naiz ezer ez asmatzen. Agian inportanteena begirada asmatzea izan da; montaje lana egingen. Manipulazioa aukeraketa, ordeanean, oihartzunak bilatzean egon da. Hainbat pasarte haiek kontatutakoak eta elkarrekin inongo harremana dutenak nik elkartu ditudanak. Halaxe josten saiatzen naiz liburu bat.

Hainbesterako emango zuenik bazenekien?

Intuzio bat baneukan. Ez nekien zer emango zuen, zer esango zidaten. Errealitatea multiplea da, baina momentu batean erabaki nuen bi narratzaile izango nituela eta bi pertsonak bi aho, buru eta memoria dute. Tiraka ibili naiz eta nire lana izan da ahalik eta galdera egokienak egitea. Azkenengo lau hamarkadetan zabalik egon da Deba ibaiaren eta San Franzisko kalearen artean. Bi ibai modura irudikatzen nituen: likidoa, ibaia, denboraren joanaren sinbolo modura. Ibaia hor dago dendaren aurretik. Naturak no-beletan gizakiaren eskalaren neurria ematen du. Kalea ibai solido baten modura imajinatzen nuen. Hor ere hainbat isuri izan dira: mugimendu sozialak, hilketak, manifestazioak, soinua, jendea... Dendariaren ikuspuntu hori, kalearen mailan dagoena, interesgarria iruditzen zitzaidan kulturaz hitz egiteko ere. Baita ekonomiaz, familiaz, harremanez, maitasunaz eta abarrez hitz egiteko ere.

Distantzia hartu duzu?

Idazleok ohituta gaude arrotze ariketa hori egingen. Hori da literaturaren sekretua. Distantzia behar du literaturak funtzionatzeko. Arroztu behar izan dut aurrena entzun nuen ahotsa, nire amarena. Paperera pasa orduko itzulpen ariketa bat da, nolabait. Haien ahotsa testu bihurtzeak arrotze moduko bat da. Sekretua galderetan egon da. Ez nuelako alabarentzako galdeztzen, ez nuen niretzako galdeztzen; testuarentzat galdetzen nuen. Askotan fikzioaren babespean argitaratzen dugu, baina idazle guztiok erabiltzen dugu material intimoa beti. Idazleak gertuen ezagutzen dituen errealitate horietatik idazten du. Ni gehiago kezkatzen ninduen ez hainbeste testu distantzia hori lortzea baizik eta nola tratatuko zen testu hau. Hau da, Uxuek bere amari buruz idatzi du. Omenaldi intimo baten modura edo literatura modura hartuko zen. Hala ere, ez zitzaidan ezkutatzeko zerbait zenik iruditzen.

Kontatu gabeko hainbat istorioen isla da.

Hori da literatura, azken finean. Edozein liburutan aurki dezakegu bizitza zatiak, pertsonaiak, eta guk egingen duguna da dialogatzea testu horretan edo fikzio horretan ikusten dugun bizitzekin edo topatzen ditugun emozioekin. Kasu honetan, orratza leku konkretu eta erreal batean jarri dugu. Baina gero espiral hori zabaldu daiteke. Motibazio zentrifugoarekin idatzi dugu. Azken hamarkadetan bizi izan ditugun hainbat gauza eta oso errekonozibleak kontatzen dira.

Apirilean Lakuntzan solasaldia egingen duzu. Nola prestatu duzu?

Asko pentsatzen dut idazten duanari buruz. Material horrekin saiatzen naiz hari txuri eta hari koloredun horiek uztartzen eta,aldi berean, bereizten. Zein izan den bidea eta lan horrekin ikasi dudana. Edozein liburu bilaketa prozesu bat da. Sortzaileok ez daukagu alde aurretiko mezu itxi bat erabat kontrolatzen duguna. Hartzaileak ulertzen duen artefaktu bat sortzen du. Ez du horrela funtzionatzen. Intuzio bat dauka bide bat hasten dela eta bide horretan ikasitakoarekin emaitza aurkezten du. Solasaldietan bidez eta emaitzaz hitz egingen saiatzen naiz. Jendeak nola irakurri duen, zer sumatu duten falta... entzuten dut ere.



Carmen Elvirak Pamiela argitaletxean lan egiten du eta 'Liburu bat egingo dugu' sormen tailerraren irakaslea da. UTZITAKOIA

Liburuak ez dira liburutegietan hezten

Sakanako Mankomunitateko Euskara zerbitzuak antolatuta 'Liburu bat egingo dugu' sormen tailerra izanen da apirilaren 20an eta 27an Uharte Arakilen eta Olaztin, hurrenez hurren. Carmen Elvira eta Ana Urrestarazu dira irakasleak

Eneida C. M. eta Erkuden R. B. SAKANA

Liburu bat zabaltzean barruan beti istoriotxo bat dagoela esan du Carmen Elvira Pamiela argitaletxeko langileak. Liburuak irekitzean, beraz, "misterioa" aurkitu behar dute. Elvira Pamiela-Kalandraka haur literatura proiektuaren arduraduna da, eta haurrei eta gazteei liburuak egiten irakasten die. Liburu bat egiteko orduan editorearen lana oso garrantzitsua da, eta tailerretan haren figura erakusteko Editoreen elkarteko Ana Urrestarazuk ere parte hartzen du. Apirilaren 20an, asteartea, Uharte Arakilgo udaletxearen ganbaran, eta apirilaren 27an, osteguna, Olaztik Ludotekan, *Liburu bat egingo dugu* sormen tailerra egingen dute. Ikastaroa 10 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzenduta dago, eta tokiak mugatuak direnez euskara1@sakana-mank.eus helbidean izena eman behar da.

Sormen tailerraren izenburuak dioten bezala, parte hartzaileek liburu bat egingo dute. Hasieratik bukaeraraino. "Formatua emango diegu eta gero beraiek bete behar dute bere liburuaz izango dena". Liburu pertsonalizatuak izango dira, eta Elvirak eta Urrestarazuk liburu hori nola sortu erakutsiko diete. Haurrek gero nahi duten moduan osatuko dute "bere liburuak".

Hitza eta marrazkia

Liburu pertsonala eta bakarra izango denez, bakoitzak erabakiko du nola betetzen duen: "Batuetan ilustrazioak egiteko zaleak direnak aurkitu ditugu, eta beste batuetan idazteko zaletasuna dutenak, eguneroko bat idazten dutenak eta abar. Orduan, beraien zaletasuna bultzatzeko aukera ere badaukate; bai ilustrazioaren aldetik bai idazle diren aldetik". Pamielak bultzatzen dituen liburuak "holakoak" dira, haurren eta gazteen liburuak hitzez eta ilustrazioez osatuta egon ohi dira: "Guretzat biak dira oso garrantzitsuak". Parte hartzaile bakoitzak nahi duen garrantzia emango diola azaldu du Elvirak. "Tailerretan egingo duguna liburutxoa da. Demagun kutxatxo bat dugula eta gero bakoitzak sartuko du nahi duena". Liburuak, beraz, tailerretan hasten da, baina prozesua ez da bertan bukatzen.

Ikastaroa 17:00etatik 18:30era izanen da, eta "ordu eta erdia berehala pasatzen zaigu". Saioa

**TAILERREAN
BERAIEN ZALETASUNA
BULTZATZEKO
AUKERA ERE
BADAUKATE**

bi ataletan banatzen dute: alde batetik, teorikoagoa dena eta, bestetik, praktikoagoa. Teoriko ere "arina eta parte hartzailea" dela azaldu du Elvirak, "ez da txapa botatzea". Kuriositatez parte hartuko dutela esan du. Bigarren zatia "guztiz praktikoak da" eta liburuak eskuz egiten dute irakasleek daramatzaten materialak baliatuz. "Bi aldeak oso garrantzitsuak dira". Haurrek pentsatzen dutena baino gehiago dakitela aipatu du Elvirak, "ikastetxean landu dutelako, nonbaiten ikusi dutelako...", eta gauza interesgarri asko ateratzen direla esan du: "Guk ere ikasteko asko dugu".

Liburu baten prozesuan editoreak ezinbestekoak dira. Baina Elvirak aipatu duenez, "oso ezezaguna" da haien figura. "Liburu baten atzean beti editore bat dago". Ideia horretatik tiraka, Elvirarekin batera Urrestarazu egonen da. Baina zer da editore bat? "Irakasleekin konparaketa txiki bat egiten dut, haurrek ondo ulertzeko. Irakasleak idazlan bat egiteko eskatzen du. Aurkezten dugu eta boligrafo gorriarekin edo berdearekin gauzak zuzenduko ditu. Idazleekin berdina egin behar da. Baina ez gaizki dagoelako, baizik eta politagoa jartzeko; edertzeko". Hori da editorea. Liburuaren fase guztien atzean dago eta, tailerretan

liburu bat egiteko prozesua azaltzen dutenez, editorearen lana ikusteko aukera ere badute. Alderaketa hori eginez, gainera, eta gaia haien bizitzetara eramanda "bizitzarako ikasgai inportantea" bihurtzen da ere; "gauzak zuzentzen dira ez gaizki daudelako, baizik eta hobetu daitezkeelako".

Prozesua

Idazketa gizakia gizakia den unetik dagoela konturatzea da liburu bat sortzeko lehenengo urratsa. Kobazuloetan ere gauzak kontatzen dituztela azaltzen dute modu "oso arinean" tailerretan, "haiek gauza hauek badakizkitez". Behin hori kontuan hartuta, bigarren urratsari ekiteko galdera bat planteatzen dute: non dago istorioa? "Bakoitzaren buruan dago". Hortik dator guztia. Idazleak buruan istorio bat dauka eta hortik sortzen da liburuak. "Liburuak ez da liburu dendan ikusten duguna, baizik eta nor-

baiten buruan egon den zerbait da". Bertan hasten da prozesua.

Tailerretan liburuak sortzen ikasi ez ezik, liburuaren unibertsorekin harremanetan jartzen dira ere; hortaz, liburu sortzeko prozesuan liburu desberdinak aztertzen dituzte ere. "Liburu pila bat eramaten ditugu haiek konturatzeko zer liburu mota dauden". Ilustrazioaren prozesua "oso polita" dela esan du Elvirak. "Maite Mutuberriaren ilustrazioak daramatzagu". Bukatzeko inprimatze prozesua dago. "Oso interesgarria da. Politena inprenta batera joatea izango zen bertako makinak eta tresnak ikusteko. Zoragarria da". Baina egoera dela eta, ezinezkoa da; beraz, Urrestarazu horretan "oso trebea" da eta nola josten den, azala nola jartzen den edo koloreak nola sortzen diren azaltzen die. "Lau kolore daude eta haiekin beste guztiak egiten dira. Papera ere aukeratu behar da... oso polita da".



BAZTERRETIK

BELE BELTZAK

Age of Empires 2

1999an Ensemble Estudiosen eskutik kaleratu zen bideo jokoak da, eta ziurrenik zuetariko askok noizbait ikusi edota jolastu duzue. Erdi Aroan girotuta dago eta bertan, guda bizi eta bortitzak sortzen dira norberaren ekonomia zaintzen den bitartean. Zaharra izanda ere, hainbat jolas modu eskaintzen dituen jokoak da. Bakarka jolas daiteke herrialde ezberdinen kanpaina historikoak egiten, pertsonaia historikoak edota herrialde bakoitzaren historia ezagutzen, edo bestela, beste lagun batzuekin batera online aritzeko aukera dago.

Helburua, aurkariak baino lehenago inperio bat eraikitzea da eta noski, aurkariari berea sortzen galaraztea. Mapa batean kokatuta bertan dauden etsaiak edota baliabideak (janaria, egurra, urrea edo harria) aurkitu behar dira. Horretarako, baserritarrek behar dira baliabide guzti horiek jasotzeko eta eraikin berriak sortzeko. Eraikin horietatik, gerlariak agertzen dira aurkariak erasotzeko

edota teknologiak ikasteko.

Denbora aurrera doan bitartean, jokalariek aro berriak ezagutzen dituzte, gerlari indartsuagoak sortzeko edota teknologia aurreratuagoak ikasteko, modu horretan inperioa handituz.

Hori guztia egiteko, jokalariek berak aginteak eman behar ditu (eta ez dira gutxi). Beraz, teklatua eta saguarekin trebea izatea eskatzen du jokoak. Txandakako jokoetan ez bezala, denbora baliabide garrantzitsuena dela esan daiteke.

Bitxia bada ere, duela 18 bat urte Bele Beltzakeko kideok bideo joko hau ezagutzen dugu, baina gutxira arte ez dugu elkarrekin horrenbeste jokatu.

2017an sekulako berrikuntzak egin zituzten eta horren ondorioz, mundu mailan jokalaria berri asko dago. Gainera, aipatzeko da, 22 urteren bueltan, birus madarikatu honek eragindako egoeratik Age of Empires 2: Definitive Edition jokoak izugarriko arrakasta lortu duela.

Beraz, hau irakurri eta gero, ez zaitez ordenagailuan bakarrik jolasten aritu, Bele Beltzak taldeko kideak irrikaz gaude zurekin jolasean aritzeko.

Azal berritze bikoitza

'Azal berritzen' diskoa da Esti eta Mikel Markez musikariek elkarrekin kaleratu duten diskoa. Apirilaren 10ean, larunbata, 19:30ean, diskoaren aurkezpenaren emanaldia egingen dute lortia kultur gunean

Eneida C. M. eta Erkuden R. B. ALTSASU Konfinamenduaren garaian Mikel Markezek eta Esti Markezek egindako lanaren laburpena dago *Azal berritzen* diskoaren atzean, Mikelek azaldu duen bezala. "Erdi txantxetan sortu zela esaten dugu". Aurretik Estik Mikelen hainbat kantutan abestu izan du, eta Mikel Markezen diskoetan parte hartu izan du, "kolaboratzaile bezala; nire izenean zihoan proiektua". Duela urte bat bizitako konfinamendu garaian "eta nire sorpresarako" Esti kantuek sortzen hasi zen. Aita eta alabak bi etxe desberdinetan egin zuten itxialdia, eta abestiren bat sortu ondoren elkarri bidaltzen zioten. Horrela sortu zen, erdi brometan, *Azal berritzen* diskoa: "Aipatu genuen: zuk bost eta nik beste bost eta diskoa egingo dugu".

Eta halaxe izan zen. "Nire aitak buruan zebilkien disko berria egin nahi zuela eta azal lorea izena aipatu zuen, azal berria ere aipatu zuen. Zergatik ez azal berritzen?", azaldu du Estik izenburuaren inguruan. Disko berria "azal berritze" bat dela aipatu du, gehienbat Mikelendako: "Mikel Markez bezala ibili ondoren orain nirekin". Berarendako ere azal berritze bat izan da, lehenengo aldiz abestiak sortu dituelako.

Guztira, hamar kantuz osatutako diskoa da *Azal berritzen*. Konfinamendua amaitu eta bi hilabete inguruan grabatzen ari zirela azaldu du Mikelek. Bere kanta batekin hasten da



Esti eta Mikel Markezek 'Azal berritzen' diskoa kaleratu dute. UZTITAKOIA

diskoa, Toti Martinez de Lezeak egindako poema batekin: *Bila nazazu*. "Azken garai hauetan bizi izan ditugun aldaketa sozial hauek guztiak ulertzeko modu bat azaltzeko balio dit". Abestiak itxaropena eta ilusioa ez galtzearen inguruan hitz egiten du, "aurrera egiteko kantu bat da, oso baikorra". Gaur egongo egoerarekin badatorrela azaldu du Mikelek. Musikariak ere maitasunari, harremanei eta

Euskal Herriari buruz hitz egiten du diskoan.

Estiloak

Estiren abestien gaiak "antzekoak" direla esan du. "Nire kasuan agian bizitzari eta maitasunari buruz hitz egiten dut gehiago". Alaia Martinen letrarekin egindako abestia nabarmendu du: "Orain dagoen gizarte gaixo honen inguruan hitz egiten du". Toti Martinez de Lezea eta Alaia

Martinen letrak ez ezik, Pako Aristi, Jon Maia, Joseba Sarriandia eta abarren letretan ere oinarritu dira kantak egiteko. Iker Lauroba, Ane Bastida, Olaia Inziarte eta Eneritz Aulestia musikariren kolaborazioa ere izan dute diskoan.

"Aitaren musika txikitatik entzun dut. Kantak egiterakoan ez daukate antza, ezberdinak dira. Nik egiten dudana berak ez luke egingo eta berak egiten duena nik ezin dut egin". Norberari ateratzen zaiona egiten dutela azaldu du Estik, baina "txikitatik" entzuten duenak eragina izan du sortzeko orduan. Estik pop doinuetara jotzen du eta "harmoniak beste modukoak" dira eta Mikelen kantek folk aldera jotzen dute, Mikelek azaldu duenez.

Elkarrekin

Arkaitz Miner eta Julen Alonso musikariek "orokortasuna eta diskoari borobiltasuna" eman diotela gaineratu du Mikelek. "Gure ahotsa eta gitarraz gain bi musikari horiek bai ematen diotela halako lotura bat; zentzu orokor bat disko guztiari". Lanaren muina edo bizkarrezurra beraiekin landu dutela esan du. Apirilaren 10eran, 19:30ean, Altsasun egingen duten kontzertuan laukotea ariko da: Miner biolina, mandolina eta gitarra; Alonso trikitixa, akordeoia eta pianoa eta Esti eta Mikel bakoitzak bere ahots eta gitarrarekin. Bestetik, abeslari bakoitzak bere kantetan protagonismoa dauka, baina elkarrekin ere aritzen dira.

Konfinamenduan lehenengo aldiz Esti gitarra hartu eta denbora zuenez abestiak sortzen hasi zen. Irakasle ona izan du, "zer esango dut nik". Lehenengo aldiz, beraz, aita eta alaba elka-

rrekin ari dira oholtzaren gainean biek sortutako proiektu batean. "Zintzoa izanda bi erantzun eman nizekizuke: lehenengoa, izugarritzko ilusioa egiten dit. Pentsa, zure alabarekin proiektu bat partekatzea gerta dakizukenez gauzarik politenetarikoa da. Bestetik, edozeinekin egiten duzun edozein proiektu partekatuta bezala, ez da erraza guztian ados egotea".

Elkarrekin egiten duten lehenengo proiektua izan arren, "betidanik" kantatu izan dute elkarrekin. "Baina orain fokupean eta jendearen aurrean egitea oso gauza desberdina da". Eztabaidatxoak sortzen diren arren, eramangarriak dira. Esti: "Oso ondo eramaten gara. Jende askoarentzat gurasoekin lan egitea zaila da, baina niretzat oso erraza da. Ez dugu ia eztabaidatzen eta, bestela, eztabaidatxo txikiak dira".

Batzuetan "bertigoa" sentitzen duela aitortu du Estik. "Dena da berria". Ondo pasatzera eta abestera ateratzen dela esan du. "Etengabe ikasten ari naiz". Prozesuaren parte da, Mikelek gaineratu duenez: "Nik esango nuke oraindik ikasten ari naizela... pentsa". Altsasun eskainiko duten kontzertuan *Azala berritzen* diskoaren "ia" abesti guztiak interpretatuko dituzte, baita elkarrekin abestu izan dituzte abesti "ohikoak" ere, Mikel Markezenak ez diren beste batzuk ere: "Hor misterioa gehiago gordeko dugu".

" DISKOA ERDI TXANTXETAN SORTU ZELA ESATEN DUGU" MIKEL MARKEZ

Liburu dasta:
Literatur solasaldiak idazleekin

DENDAOSTEKOAK

UXUE ALBERDI



Liburua: Dendaostekoak
Idazlea: Uxue Alberdi
Eguna: Apirilaren 15ean (ostegunarekin)
Tokia: Lakuntzako Tximonenan
Ordua: 18:00etan

◀ Tokiak mugatuak dira. Horregatik aldeztu aurretik izena eman behar da berdintasuna@sakana-mank.eus edo euskara@sakana-mank.eus horietako helbidetako batean. Lehendabiziko hamarrek liburua jasoko dute, doan.

Antolatzaileak:

Mank
EUSKARA



"Nahiz eta gogorra izan, indarrak ateratzen ditugu"

Zaporeak, Europara ailegatzen diren errefuxiatuei janari duina emateko lan egiten duen elkarte da. Oraingo honetan esne bilketa bat gauzatzen ari dira Euskal Herrian, eta apirilean Sakanan arituko dira bilketan. Mikel Agirrezabal, elkarteko kidea da

Leyre Mateos Galarza HIRIBERRI ARAKIL

1 Zergatik esne bilketa bat?

Beste batzuetan janari bilketa egin dugu, eta ez da ezetz esango norbaitek janaria ekartzen badu. Baina oraingo honetan, pandemia erdian delarik, errefuxiatuak urte osoa konfinatuta daramate esleitutako eremuan. Ezin dira atera eta gu ezin gara barna sartu; beraz, beste elkarte baten bidez sartzen da gure janaria. Jada bi fruta eta esne osagarria ematen ari dira, gobernuak ematen diena ez delako nahikoa elikadura on bat izateko. Fruta han erosten dugu, baina esnea hemendik eramanez dezagenu.

2 Nafarroan apirilaren 10ean hasiko da, zeintzuk dira Sakanako bilketa lekuak?

Sakanan oraingoz, Arbizun eta Altsasuko BM-n eta bi Eroskietan egingen dugu.



Mikel Agirrezabal, eskubian, Zaporeakeko kideekin Lesboseko sukaldetan. UTZITAKOIA

3 Edozein esne eramanez daiteke?

Esne osoa eskatzen ari gara. Baina norbaitek esne erdi gaingabetua edo gaingabetua emanez gero ezer ez da baztertuko.

Baina behar dena ikusita eta hango jendeak elikatzea behar duela eta osagaiak behar di-

tuela ikusita, esne osoa nahia egin dugu.

4 Zenbat denbora iraungo du esne bilketak?

Apirilaren 10ean egongo gara bakarrik, 10:00etatik 20:00etara edo 21:00etara. Norbaitek egun hori pasa eta gero bere ekarpena egin nahiez gero, biltegia Iruñean daukagu eta beti irekita ez egon arren, jakinaraziko genuke zer egun eta orduetan joan daitekeen jendea. Bernardino Tirapu zehar bideko 46an gaude.

5 Zein da orain Lesboseko egoera?

Oraingoan, pandemia erdian, Karatepeko eremuan konfinatuta daude. Zelai hau itsas ondoan dago, berunez kutsatuta, ez dauka inolako aterperik eta euria egin duen guztietan urmaela bilakatu da. Ez dugu informazio zuzena barruan nola dauden jakiteko, oraindik ez digutelako sartzeko baimenik eman, baina beste elkarteetatik dakigun gauza bakarra da gero eta okerrago dagoela barruko egoera. Covid-ak kutsatutakorik ba ote dagoen ez dakigu ziur, baina baietz uste dugu. Garbitasunik gabeko toki batean bizi dira eta bizi baldintzak oso kaskarrak dira. Gainera, armadak ematen duen janaria oso eskasa da eta elkartetik eramaten dugunarekin bizi behar dute.

6 Zergatik hasi zen Zaporeak Grezian lanean?

2016ean Chios uharterean hasi ginen, 10 edo 12 hilabete iraun genituen han. Ez gara elkarte handia eta oztopo asko jartzen dizkigute bidean. Chios-en oztopo asko jarri eta gero ateak itxi zizkiguten, eta handik joan behar izan genuen. Beste alternatiba bat bilatu eta 8 hilabete Atenasen pasa genituen, SOS Errefuxiatuak elkartearekin egon ginen, baina berdina gertatu zitzaigun, eta sukaldia itxi zizkiguten, gu salatu eta osasun kontrolak bidali eta gero. Horren ondoren, Patran egon ginen 3 hilabetez, eta antzeko zerbait gertatu eta gero bota gintuzten. Eta, azkenik, Lesbos. Oraingo honetan sartzeko asko kostatu zitzaigun, urte bat. Zailtasun handiak izan arren han jarraitzen dugu lanean, dagoeneko 26 hilabete egin ditugu lanean.

7 Nolako da eremuetan bizi den jendea?

Nazionalitate asko daude eremuan, gehienak afganiarrak eta siriarrak dira. Sirian aitortutako gerra bat dagoenez gutxika-gutxika kontinentean sartzen joan daitezke. Alderantziz, afganiarrak ezin dira sartu, bere herrialdean aitortutako gerra ez dagoelako eta ez daukate asilo eskubiderik.

8 Zein da zuen helburu nagusia?

Jende guzti hori elikatzea eta beraiendako janaria prestatzea gure etxerako janaria izango balitz bezala. Guretako oso garrantzitsua da harreman bat izatea, orain egin ezin dugun arren, janaria eskuetara ematea. Beraiek ere eskertzen dute harreman fisikoa hori izatea; eta guretako, nahiz eta oso lan gogorra den eguna bukatzen denean eskuetara elikagaiak ematera joateko indarrak ateratzen ditugu.

9 Orain beste elkarte batzuekin lan egiten duzue?

Gobernuz Kanpoko Erakunde (GKE) batzuk, barruan sartzeko ahalmena daukate, eta haien bidez eramaten dugu gure janaria. Banaketa desberdina da, orain poltsetan doa dena gordeta, baina hitz egin dugun kontaktua falta izan arren jatekoa badute.

10 Beste batzuetan, antzeko ekimenetan zein izan da sakandarren erantzuna?

Azkenekoa elikagai guztien bilketa izan zen eta ikusgarria izan zen. Sakanan gutxi gorabehera 4.500 kilo janari bildu genituen egun batean. Oso ona izan zen sakandarren jarrera.

11 Nola lagundu daitezke Zaporeak elkarte beste modu batez?

Nik gogoraraziko nuke zaila dela beste egoeran jartzea inoiz ez bazaigu halako zerbait gertatu. Informaziorik ez badugu jasotzen arazoa ahaztu egiten dugu, eta inor ez dago arriskurik kanpo. Nik egingo nukeena da elkarte txikietan arreta jartzea. Elkarte txikietan langile eta boluntarioak tartean inplikatuagoak daude, eta laguntza gehiago behar da. Informazioa bilatu eta adi egon behar da bilketa hauek noiz izaten diren. Elkarte eta GKE handiek gobernuen laguntza gehiago dituzte, eta txikiak dira benetan laguntza behar dutenak.

2021-2022 IKASTURTEA



ESKOLA AGENDAK
Estandarrak edo pertsonalizatuak
Euskal Herriko jaiegunak
Unibertsoari buruzko ezagutzak handitzeko aukera



IRAKASLE AGENDAK
Estandarrak edo pertsonalizatuak
A5 edo A4 neurrikoak
Barruko orrialde zuluak edo koadernatuak

ESKATU AURREKONTUA KONPROMISORIK GABE

EGIN ZURE ESKAERA 2021EKO MAIATZAREN 31 BAINO LEHEN

618 640 056 | gk@gkomunikazioa.eus | Foru plaza, 23-1. Altsasu



DISEINU GRAFIKOA
WEB DISEINUA
KOMUNIKAZIOA